



ttipi-ttapa

TOKIKOM

2013ko azaroaren 28a | XXXIII. urtea | 603. zenbakia

www.ttipi.net

Georgina HASSAN

Abenduaren 1ean

Leitzako zineman → 24

Gehigarri berezia

2013-2014
kirol denboraldia

IGANTZI → 15

Kultur Egunak ospatuko dira abenduaren 6tik 8ra

ZUBIETA → 20

Malerrekako lehen auzo-konpostatzailea jarri dute

GOIZUETA → 22

X. Azienda Feria Eguna nobedadez betea dator

BAZTAN → 26

Elizondoko ur-depositu berria inauguratu dute

TALDE KIROLAK | Denboraldi berriko taldeak banan-banan

GEHIGARRIA → 34-53

Denera, mila kirolari baino gehiagok hasi dute denboraldi berria futbola, eskubaloia, saskibaloia, errugbia eta areto-futboleant. Ttikienetatik hasi eta helduagoetara, futbola da jokalaria federatu gehien biltzen duena (718), gero eskubaloia (221), areto-futbola (70), saskibaloia (66) eta errugbia (45). Sarako eta Senpereko kirol taldeen daturik ez dugu bildu aurtengoan.



BALOIA JOKOAN DA



ARGAZKIA: JUAN ANGEL PEROTXENA



EUSKARAREN EGUNA

→ 25 / 23

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat jarduera antolatu dituzte Areso eta Baztanen.

ERREPORTAJEA → 3-5

Doktore-tesia: gero eta gehiagok aukeratzen duen ikerketa lana

Unibertsitateko ikasketak bukatuta, bertze urte mordoxka bateko ahalegina eskatzen du doktore-tesiak. Euren esperientzia azaldu digute Paula Kasares, Saioa Diosdado, Aintzane Pikabea, Oihane Lujanbio eta Xabier Juankorenak.

ZOKKETAK

→ 60




Txartela egiteko
deitu **948 63 54 58**
telefonora











13 ortziera



20 ortziera

28 larunbete

3 astearte

24 astearte

28 larunbete

NAFARROAKO EGUNAREN OSPAKIZUNA:
Gerraldako Abesbatza
13:00 - Kultur Etxean
Antolatzailea: Nafarroako Gobernua

LESAKAKO BANDAREN KONTZERTU PEDAGOGIKOA
19:30 - Kultur Etxean - Sarrera: 3€
Antolatzailea: Labiaga Ikastola

OLENTZEROA
17:00 - Herriko Etxea plazan
(Eguraldi barra izanez gero, plazan bertan izanen da)

BERA KANTARI
Illekuestatik hasita

GLIN- GLAN ETA DIOSTESALBEA
Herriko kaniketan barna

MUSIKA ESKOLAKO EMANALDIK
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola

10 asteazkena **TRIKITIXA-AKORDEOI ENTZUNALDIA**
18:00 - Musika eskolan

17 astearte **BIOLIN ENTZUNALDIA**
18:00 - Musika eskolan

18 asteazkena **EGUBERRIETAKO KONTZERTUA**
18:00 - Kultur Etxean

ANTZERKIA:
"Cuando yo nací...
aspaldi sortu berria" (Uxane zentroa - Aspace)
19:00 - Kultur Etxean
Sarrera: 3€

ANTZERKIA + MUSIKA + BERTSOLARITZA...
"Ez gara Palestinaz ari"
19:30 - Kultur Etxean - Sarrera: 3€
Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea
Laguntzailea: Berako Kultur Batzordea



Estaldien gainerako informazio gehiago: 012 telefonoan edo www.berakoagenda.net

m

Serapio Mugika, 15 • IRUN
943 618 033

Ordizia, 5 • ORDIZIA
943 881 278

Nesken baseritar jantzi beltza osoa **39€**

Nesken baseritar jantzi koloreduna osoa **49€** etik hasita

Mutilen galtzak **9,95€**

Blusak **12,95€**

Tokilek, mantilek, etorak, aberkak, zapinak, txalekoak...

Eguberri eta urteberri on!

LIKIDAZIOA
berritze-lanengatik
DESKONTUAK
denboraldiko jantzietan

%20 etik
%70 era

IRUNgo dendan
Azaroaren 25etik aurrera

0-16 neurriko umeen arropak

8-16 urteko neska mutikoetan berezituak

Bertan eskuz egindako soinekoak

Bodyak, barnuko arropa, leotardoak, galtzerdiak, seaskak, oinetakoak

name it bambolina
IDO nika
Xti
Pangasa
Condor
Elke

GIZARTEA → HEZKUNTZA

Doktore tesia: gero eta gehiagok aukeratzen duen ikerketa lana

Doktore tesia egitea erabakitzen dutenek batz bertz 5-7 urte pasatzen dituzte horretan

Azken urteetan igo egin da tesia aurkeztu dutenen kopurua Hego Euskal Herrian. 2011n, adibidez, 2008an baino 89 tesi gehiago irakurri eta defendatu zituzten.

Mundu hori hurbiletik ezagutzeko asmoz, TTIPI-TTAPAK tesia egitea erabaki duten eskualdeko bortz lagunengana jo du euren esperientzia biltzeko.

G. PIKABEA

Eta orain zer? Horixe da unibertsitateko ikasketak bukatuta sortzen den galdera. Gehienek garbi dutelana bilatu nahi dutela eta horretan hasten dira; ez, ordea, denak. Izan ere, gero eta gehiagok erabakitzen dute doktore tesia egitea. Horrek gu-

ttienez hiru urteko dedikazioa eskatzen du, baina batz bertz 5-7 urteko pasatzen dituzte.

Azken urteetako datuei erreparatu, 2008tik 2011ra, Hego Euskal Herrian %18,4 igo zen doktore tesia irakurri eta defendatu zutenen kopurua. Espainiako Hezkun-

tza Ministerioaren arabera, 2008an 484 lagunek aurkeztu zuten tesia Hego Euskal Herrian, 2009an 540 izan ziren, 2010ean 519 eta 2011n 573.

Adinari dagokionez, gehienek 30-34 urterekin bukatzen dute tesia eta gero datoz 25-29 urtekoak. Ondoko taulan, He-

go Euskal Herrian duela bi urte aurkeztutako tesiak adinaren arabera ageri dira. Sexuaren arabera aldea ttikia da. 2011n tesien %50,6 gizonen aurkeztu zituzten eta %49,4 emakumeek.

Eskualdean ere badi-ra doktore tesia egiteko bidea hautatzen dutenak eta hala egin dute Paula Kasares, Oihana Lujanbio, Saioa Diosdado, Aintzane Pikabea eta Xabier Juankorenak. Paulak eta Oihanak Euskal Filologia ikasi zuten, Saioa eta Ain-

Adina	Aurkeztutako tesiak Hego EHN
25-29	160 (%27,9)
30-34	204 (%35,6)
35-39	72 (%12,6)
40-44	45 (%7,8)
45-49	29 (%5,1)
50-55	35 (%6,1)
> 55	28 (%4,9)
Guztira	573 (%100)

tzanek Kimika Zientziak eta Xabierrek Ingeniari-tza Industrialak. Unibertsitateko ikasketen ondoren, bakoitzak bere adarrean tesia egin du edo egiten ari da.

Paula KASARES | BAZTAN

«Hainbat nafarrek euskararen aldeko hautuak egin dituztelako dirau euskarak Nafarroan»

Nabarmenezko ibilbide akademikoa du Paula Kasaresek. «Euskarak erakartzen ninduelako», Euskal Filologia ikasi zuen, «hau da, euskal hizkuntzalaritza eta literatura». Baina bere hitzetan, «hizkuntzalaritza ez da mintzairaren bizitzaz eta geroaz kezkatzen eta nik horretan nuen kezka nagusia». Hortaz, Soziolinguistikara pasatu zen. «Ohi-ko soziolinguistikan alderdi kulturean egon den gabeziak bulkatu ninduen Gizarte eta Kultura Antropologia lizentziaturara». Beraz, bi lizentziatura, graduondoko eta diploma bana eta hori aski ez, eta aurtun doktoretza akitu du.

2000. urtean Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuan eszedentzia eskatu eta Bartzelonara joan zen doktoretza ikasketak egitera. Orduan hasi zen tesiarekin. «Urte batzuetan etenik izan nuen, 2008 aldera gaiari berriz heldu eta 2013ko uztailan tesia irakurri dut».

Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belaune-

ko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan. Hori da bere tesia: «1970etik 2012ra Nafarroan euskararen belaunez belaune-ko jarraipena nola gauzatu den eta egungo haur nafarrak zer egoeratan bilakatzen diren euskaldun argitzea izan dut xede». Azterketa kualitatiboa izan da: «jendearen bizipen, bizi-aukera, hautu, jarraera eta halakoei begiratu diet». Diseinu aldetik, bi kasu aztertu ditu: bata Iruritan eta bertzea Iruñean, eta bi belaunaldi hartu ditu, 70eko hamarraldian haziak eta haien seme-alabak, 2000tik aitzinera sortuak. Egindako lanetik «Nafarroako euskararen historia hurbila ez dela lineala» ondorioztatu du: «hizkuntzaren gaitze eta berreskuratzeari gertatu da, mintzairaren belaunez belaune-ko segidan

GOGORRA BAINA KONTENT

«Nahiz leher eginik egon, gogobeterik eta pozik gelditu naiz egindako lanarekin»



DOKTORE TESIA

Nafarroan euskararen belaunez belaune-ko jarraipena nola izan den eta gaur egungo haur nafarrak zein egoeratan bilakatu diren euskaldun ikertu du.

hausturak izan ditu». Iruritan kasuan hori «xarmanki» ikusten dela dio: «euskararen gaitze prozesuak herriaren haustura ekarri zuen.

70eko hamarraldian hizkuntza aldetik bi gune zeuden, herrigunea erdaldundua eta baserri aldea euskalduna. Urte horietan Jose M^a Sánchez Carrión soziolinguistikak euskara galdutzat eman zuen Iruritan. Halere, iruritarrek euskararen galbidea irauli dute». Paularen ustez, «euskarak ez dirau Nafarroan guraso euskaldunek beti ume euskaldunak hazi dituztelako, hainbat nafarrek euskararen aldeko atxikimendu eta hautuak egin dituztelako bai zik. Hiztun batzuk umetatik heldu zaien euskarari lotu zaizkio, baina bertze anitz euskarara gogoz hurbildu dira, hizkuntza ikasi eta beretu dute. Hiztun horiek aitamatu direlarik, seme-alaben hizkuntza sozializazioa beretaketutako mintzairan egin dute, eta horrela hasi da hainbat familian euskara (ber)etxekotzen».

Tesia egitea «ikergaiak ez ezik, neure buruaz, ahalmenaz eta gaitasun intelektualaz anitz ikasteko bidea izan da» Paularentzat. «Bide luze, malkarra eta bakartia» dela dio, baina «nahiz leher eginik egon, gogobeterik eta pozik» gelditu da. Are gehiago, ikertzen segitu nahiko lukeela onartu digu, «bai eta ikertutakoa zabaltzen ere».

Saioa DIOSDADO | LEITZA

«Ikerketan segitzeko ondorengo pausua kanpora joatea da eta itzultzea oso zaila da»

DOKTORE TESIA

Farmazeutikari begira aritu da lanean bere ikerketan, gaixotasunen kontrako farmakoak sintetizatzen lanean.



Euskal Herriko Unibertsitatean Kimika Zientzietan lizentziatua da Saioa Diosdado leizarra. Karrerako azken urtea, hala ere, Ingalatarran egin zuen, eta handik itzuli zenean, doktoretza egitea proposatu zioten EHUn bertan, Donostian, Kimika Organikako laborategian. Baiezkoa eman zuen: «lizentziatura bukatu eta nora jo ez dakizula gelditzen zara eta aukera hori eskaini zidaten». Lizentziatura bukatu eta masterra egin zuen, eta azaldu digunez, «masterra egiten ari nintzen bitartean, bekak eskatu nituen eta Espainiako Ministerioi beka eman zidaten». 2008ko urrian hasi zen bekarekin lanean.

Tesiaren nondik norakoez galdetu diogu leizarrari, baina lan zaila jarri diogu: «askotan galdetzen didate eta hain espezifikoak izaten dira, zaila izaten dela azaltzea». Laburbilduz, «sintesi asimetrikoan egiten dut lan», aipatu digu. Horrek egunerokoa dituen aplikazioen berri ere eman digu: «farmazeutikari begira ari naiz lanean, farmakoak sintetizatzen. Erreakzio bat egiten duzunean, nahiz eta molekula berdina izan, efektu desberdinak eduki ditzake, eta efektu bat ona eta besteak txarrak lortzen dituzu. Gure lana bi ho-

riek desberdintzea da. Molekula zuzen bat bakarrik saldu daiteke».

Lau urte eman ditu Saioak laborategian lanean, eta ikerketa «oso gogorra» dela azpimarratu digu: «lehiakortasun handia dago eta oso sakrifikatua da». Kontatu digunez, «Euskal Herrian ikerketan segitzeko oso aukera gutxi daude, eta gainera, oso baldintza zailak. Berriz, bekak lortzea izango litzateke, bai-

na gero eta beka gutxiago daude. Gero eta lehiakortasun handiagoa dago eta baldintzak gero eta txarragoak dira». Berak garbi du ikerketan ez duela set-

AURKEZPENA
«Urte bat daramat etxean tesia idazten eta nire asmoa Eguberrien aurretik aurkeztea da»

gituko tesia bukatutakoan, «segitzekotan ondorengo urratsa kanpora joatea da eta itzultzea oso zaila da». Hortaz, «nire helburua hezkuntzara edo beste zerbaitei bideratzea da».

Oraingoan, ordea, tesia bukatzea da Saioaren xede nagusia eta dagoeneko azkenetan dabil. Urte hau etxean tesia idazten daramala adierazi digu, eta «nire asmoa Eguberrien aurretik aurkeztea eta titulua lortzea da». Donostian, EHUn eginen du aurkezpena, eta «egun hori pasatzeak urduri jartzen» baldin badu ere, urteetako lan gogorraren fruitua izanen da. Zorte-rik onena opa diogu.

Aintzane PIKABEA | ARANTZA

«Ikerketak erakarrita hasi nintzen tesiarekin, eta gogorra bada ere, aberasgarria da»

DOKTORE TESIA

Medikuntzan izanen du bere lanak aplikazio nagusia: minbiziaren aurkako borrokan lagungarri izan daitezkeen nanogelak sintetizatu eta aztertzen ditu.



Minbiziaren kontrako terapian lagungarri izan daitezkeen nanopartikulak ikertzen dihardu Aintzane Pikabea aranzarrak, zehatzago erranda, «minbizia bezalako eritasunei aitzin egiteko balio duten farmakoak garraiatzen dituzten nanogelak sintetizatu eta aztertzen ditut. Nanogelek, bertzeak bertze, farmakoa garraiatzeko balio dute, haien barnean botika sar daitekeelako eta kimikoki presta daitezke zuzenean tumorera ailegatzeko, barrenean daraman substantzia bidean askatu gabe eta behar den modu kontrolatua askatuz». Laburbilduz, hori da bere tesiaren mamia.

Kimika Zientzietan lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta ikasketa horien ondorengo tesia egitea erabaki zuen: «karrera bukatuta irakasle izateko masterra egin ala doktoretza tesiarekin hasi zalantza izan nuen, baina ikerketa probatu nahi nuen eta hura zela momentua pentsatu nuen. Bertzela, ez nuke inoiz eginen, eta proiektu honen gaia hagitik interesgarria iruditu zitzaidan». Ikerketak erakarrita hasi zen, beraz, doktoretzarekin duela bi urte. Hasieran, doktoretza egin bidenabar Kimika Aplikatua eta Material Polimerikoak masterra ere egin zuen.

TESIAREN ONDOTIK
«Ez dut baztertzeko kanpora post-doktoretza bat egitera joatea, baina hori momentuan ikusiko dut».

Esperientzia «hagitik aberasgarria» izaten ari dela adierazi digu eta «gustura» dagoela. Halere, «gogorra» dela onartu du: «ordu aunitz sartu behar dira». Tesia eginez «gauza aunitz ikasten» ari dela ere kontatu digu: «iker-tzen, taldean lan egiten, norbere lana aitzinera eramaten eta hori kontrolatzen, idazten, jendearen aitzinean solasten, ingelesa lantzen... Gainera, kongresuetara edo kanpora lanera joa-

teak jende aunitz ezagutzeko eta bidaiatzeko aukera ematen du».

Tesia bukatzea da orain bere lehentasuna, eta etorkizuneko asmoek galdetuta, «gero ge-

rokoak» erantzun digu. Bere hitzetan, «gaur egun, ikerlarien egoera hagitik beltz dago hemen, laguntzak aunitz murrizten ari direlako eta gero eta aukera guttiago eskaintzen dituztelako hemen lan egiteko». Erran digunez, «ez dut baztertzeko kanpora post doktoretza bat egitera joatea», baina hori momentua ailegatzeko erabaki du. Eusko Jaurlaritzak lau urtetarako eman dion beka 2015eko abenduan bukatuko zaionez, tesia ordurako aurkeztu nahiko luke: «espero dut bi urteren buruan aurkeztu ahal izatea». Bitartean, medikuntzan ekarpena egin dezaketen nanogelekin lanean segituko du.

Oihana LUJANBIO | GOIZUETA

«Tesia egiteko diziplina asko behar da, zure esku dagoelako egiten duzun lana»



DOKTORE TESIA

Nafarroa ipar-mendebaldeko euskara nola aldatzen ari den ikertzen dihardu. Goizuetan hasi du ikerketa, gerora inguruko tokiekin konparatzeko.

«Euskararen berri jakitea gustatu izan zait beti, hizkuntzen berri orokorrean, baina gurea euskara da. Goizuetako hizkerak ere beti izan du zerbait, bai guretzat eta bai kanpokoentzat ere». Horixe izan zen abiapuntua. Euskarari buruz gehiago jakiteko asmoz, Euskal Filologia ikasi zuen Oihana Lujanbio goizuettarrak EHU Euskal Herriko Unibertsitatean. Baina jakinmina urrutirago joan zen, eta bereziki soziolinguistika egiten zitzaion interesgarri, hau da, «euskararen gauegun-egoeran jarri nahi nuen arreta». Hala, unibertsitateko ikasketen ondotik doktoretzarekin

hasi zen. Tartean, graduondoko batzuk ere egin zituen, eta Soziolinguistika Klusterrean ere lanean aritu zen. Horiek bukatuta, orain hasi da berriz tesiarekin, EHUK eman dion lau urterarako bekarekin.

Hizkuntza aldakortasuna Nafarroa ipar-mendebaldeko euskarari. Hori da Oihanaren tesiaren izena: «gaur egun euskara nola aldatzen ari den ikertzen ari naiz». Goizuetan hasi du azterketa, eta gerora «egoera beretsuan egon litezkeen inguruko tokiekin konparatu nahi dut, Araitx Betelurekin eta beharbada Leitzarekin». Eta azterketa egiteko aldatzen ari diren 15 aldagai har-

tu ditu kontuan, fonologikoak batzuk eta morfologikoak eta lexikoak besteak: *karri/ekarri, yan/jan, zertikan/zertik, izain/izaingo, dut/ daukit, eztkit/eztakit, arrunt/oso, deus/ ezer, zerbette/zeoze...* Estatistikaren bitartez, horiek zeren arabera aldatzen ari diren ikusten ari da: adina, sexua, ikasketa maila, Gipuzkoarekin duten harremana... Goizuetan egin duen orain arteko lanarekin «euskara

aldatzen ari dela» ondorioztatu du: «zaharretatik gazteetara aldatzeko badira. Gazteek gero eta batuago egiten dute». Hala ere, bere ustez, «Goizuetan aldaketa ez

LAGUNTZA

«Beka edukitzeak asko laguntzen du, lan egun normal bat bezala da. Bestela, gogorra izango litzateke»

da haundia. Beste leku batzuetan haundiago izango da». Tesia 2016rako bukatzea «espero» du, eta etorkizunaz galdetuta, ez omen du «batere argi». Bitartean, ordea, badu zeregina, egunaren zati haundi bat ikerketan joaten baitzaio. Bere hitzetan, «beka edukitzeak asko laguntzen du. Bestela, oso gogorra izango litzateke. Bekarekin lan egun normal bat bezala da». Diru-laguntza ez ezik, «tesia egiteko diziplina asko behar da, zure esku dagoelako egiten duzun lana». Baina itxaropentsu mintzo da: «zeregin nahi duzun argi duzun heinean, eta denbora mugez konturatuta, posible da».

Xabier JUANKORENA | DONEZTEBE

«Azken zatia gogorra egin arren, denboran atzera eginen banu gauza bera eginen nuke»



DOKTORE TESIA

Gero eta potentzia haundiagoko aerogeneradoreen erabilerak sortzen dituen arazoak konpontzean oinarritu da bere ikerketaren mamia.

Matematika, fisika eta elektronika bezalako ikasgaiak betidanik izan ditu gustuko Xabier Juankorena doneztebarrak, eta horregatik ikasi zuen Ingeniaritza Industriala Iruñeko unibertsitatean. Karrera akituta, berriz, tesia egitea erabaki zuen: «karreraren azkeneko urtean tesia egiteko eskaintza batez enteratu nintzen. Enpresa baten eta unibertsitatearen arteko kolaborazio bat zen. Nik enpresarentzat ikerketa lana eginen nuen, baina unibertsitatean. Ikasle bizi modua luzatzeko aukera ikusita, eta soldata batekin, argi eduki nuen hori nahi nuela. Gainera, gaia gustukoa nuen». Honela azaldu digu bere lana: «gero eta potentzia haundiagoko aerogeneradoreak erabiltzeak sortzen dituen arazoak konpontzean oinarritu da nire lana, batez ere aerogeneradore horiek sare elektrikoaren egonkortasuna ez kaltetzea, eta ahal bada, egonkortasun horri laguntzea». Horrek egunerokoan aplikazio hauek omen ditu: «sare elektrikoari ez dio sobera grazia-rik egiten parke eoliko asko berari konektatzeko, bere egonkortasuna kaltetu dezakeelako, batez ere, sareko tentsioa erortzen denean, itzalaldietan. Etorkizunean, arazo bat izan daiteke energia eolikoaren garapenera-

ko. Aerogeneradoreek sarearen egonkortasunari laguntzen badiote arazo hori saihesten da». Ez da damutzen hartutako bi-dearekin: «orokorrean esperientzia ona izan da eta denboran atzera eginen banu, gauza bera eginen nuke». Bere tesian bi zati bereizi ditu: «batetik, ikerketa lana. Zati hau unibertsitatean egin nuen, hiru urtez». Ez zitzaio- la «batere gogorra» egin aipatu digu, «urte onak» izan zirela.

Ikerketa akitu eta enpresan lanean hasi zen. «Tesia idaztea falta zitzaidan, hau da, egingdako ikerketak eta lortutako ondorioak azaltzea eta itxuroso paratzea.

UNEAN UNEKOA

«Ez zait gustatzen epe luzerako planak egitea. Bizitza zuk planak egiten dituzunean gertatzen den hori da»

Eta azken zati hau nahiko gogorra egin zait eta egiten ari zait». Bere hitzetan, «egun guztian lanean aritu eta gero, ez da gogo askorik izaten tesia idazteko, eta asteburuetan beti dago zerbait hobea egiteko». Halere, ez da denbora luzerako kontua izanen, «azken sprintean» baita go. Tesiaren zirriborroa akitzen ari da eta zuzenketak eta gainerakoak egindakoan, martxo edo apirilera aurkezteara aurreikusit du. Dena den, nahiago du etorkizuna ez antolatuta: «ez zait sobera gustatzen epe luzerako planak egitea. Azken finean, bizitza zuk planak egiten dituzun bitartean gertatzen den hori da».

**Nire txanda**

Koro IRAZOKI

Xixtuka (2)

A itzineko Ttipi-Ttapan Josebak aipatzen zituenean xixtulari horietako bat naiz. Ttiki-ttikitatik maite izan dut xixtu egitea. Josebak zion doinu polit hau orain guttiago aditzen dela eta ados nago. Behar bada, lehen bakoitzak sortzen zuen musika, musika aditzeko manera bakarra zelako izanen da. Gaur egun irratia, musika-gailuak, mugikorrak, eta bertze hainbertze tresna ditugunez, errexa da musikaz inguratua egotea. Xixtuka eta xixtuka bertze hausnarketa bat egin nahi dut: xixtu egitea terapeutikoa dela uste dut. Osasunean eragin ona duela pentsatzen dut. Xixtuz ari naizelarik maiz erraten didate: "zeinen kontent zauden". Eta ez, gehienetan ez du deus ikus-tekorik sentitzen naizen moduarekin. Iduritzen zait xixtu egiteak indar haundi bat daukala: trixte edo apal zaudenean, xixtuka hasi, eta zure jarrera hobera aldatzen da. Ez da ergelkeria. Niri bederen funtzionatzen dit. Eta seguraski jende gehiagori ere baliagarri suertatuko zaio. Esatera zaharrak dion moduan: "Txoriak ez du kantatzen kontent dagoelako, alderantziz kontent dago kantatzen duelako."

Ezpala

Aitor AROTZENA

Tarta bakoitzeko bortz urte

A dos nago. Nafar guzion begitartean zartatutako tarta bakoitzeko 5 urte barrote artean. Edo 9, segun. Euskararen legea liburutegietan, komunikabideetan edo osasun arloan ez betetzeagatik, 5 urte (x3). Parlamentuaren agindua ez onartzeagatik (Maxurrenea...), 9 urte. CANeko die-tengatik, 5 urte. 60 kilometroko AHTa egiteko milioiak xahutzeagatik, 9 urte. Parot doktrinarekin.

Nabarmentzekoak

**Floren NAZABAL**
Zortzigarren txapela

Doneztebeko ferietan jokatu zen Nafarroako aizkora txapelketaren finalean jaun eta jabe izan zen eta zortzigarren txapela jantzi zuen. Jon Rekondo leitzarra azpi-txapeldun izan zen.

**Joxemari SESTORAIN**
Leitzako poeta

Poema liburu bat (itzulpena, edizio elebiduna) kaleratu berri du: Lois Pereiro idazle galiziar ospetsuaren *Akaberako poesia amodioaz eta gaitzaz* (1992-1995).

**Pascual ALDABE**
Giltzarrik omendua

Martxoan hil zen musikari eta konpositore lesakarra omendu zuen Giltzarri Abesbatzak Arantzan. Kantaldiaren ondotik, orogarri bat ere eman zioten Matixari, Pascual zenaren alabari.

**Atzera begira → 2003.11.13 / TTIPI-TTAPA 362 zk.**

Berako Pagola txistorra lantegia ezagutzen

«Orain dela ehun urte txistorra azpiproduktua zen. Gure asmoa, txistorrari ber-tze kategoria bat ematea izan zen. Duela 30 urte Alemanian izan nintzen eta han ikusi nuen saltxitxa ez zela azpiproduktua, produktu *izarra* baizik. Eta pentsatu genuen zergatik ez dugu egin behar hemen txistorra produktu izarra, haragirik onenarekin, haragi berexiarekin... eta hortan hasi ginen eta hortan ari gara». Horrela erran zigun Josetxo Pagola Berako txistorra egileak duela hamar urte ttipi-ttapari emandako elkarriketan. Behi eroen afera atera zenean indioilar hanburgesak egiten hasi eta «hori da gaur egun gehien berretzen ari den salmenta».

**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKATel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • **info@ttipi.net**

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneritz Iraola **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Iruñe eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	40€	Europa	59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Ipar Euskal Herria	59,50€	Amerika eta Australia	124€	Leitza	17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

Hezkuntzari begira

Jexux BULDAIN

Munduan zehar hezkuntza sistema desberdinak egon arren, munduko toki gehienetan ezarrita dagoen bizi sistemari aurre egiteko, hezkuntza funtsezkoa dela garbi dago. Orain arte, hezkuntza sistemak bere fruituak eman ditu. Fruitu onak gainera, lan mundura, ikasleak prestatuak atera izan direlako eta ondorioz, enpresatan lana bilatu izan dutelako. Gaur egun, egoera guztiz aldatu da eta lana bilatzea ia ezinezkoa bihurtzen ari da edo kondizio oso prekarioak onartu behar dira. Etorkizuneko joera hau izango da eta egoeraren aurrean, hezkuntzaren erreakzio bat beharrezkoa dela iruditzen zait. Gauza berriak ikasteko beharra dago eta gauza berriak irakasteko, aldaketak sortu behar dira. Helburuak finkatu ondoren, unitate didaktiko berriak sortu beharko dira. Gaur egungo eta etorkizuneko hezkuntzaren helburua, ikasleak bere kabuz lana sortzeko prestatuak ateratzea izan behar du. Honek exijentzia maila altuago bat eskatzen du eta hezkuntzako arduradunek, prest egon beharko dute erronka berriari aurre egiteko. Nire iritzian, haurrak txikitik erlazionatu behar dira diruarekin. Eskolan normalean izan behar du diruaz hitz egitea eta diruarekin ariketak egitea. Dirua ikuitu, gorde, trukatu, salerosketak egin, maileguak hartu eta eman, dena modu fiktizioan eta haurrak rol desberdinetan kokatuz. Diruaren aurrean beldurra galdu eta konfidantza irabazi behar dute. Haur garaietan bereganatzen den hezkuntzak, indar handia dauka eta horregatik iruditzen zait gune egokia, diruarekin erlazionatzen hasteko. Orain arteko hezkuntzaren ondorioz, gehiengo batek, dirua modu mekanikoan erabiltzen du eta nire proposamenaren ondorioz, helburua, modu dinamikoan erabiltzea izango litzateke.

Bakoitzak hartu bere diruaren ardura eta diruaren atzetik ibili beharren, diruaren aurretik ibili. Maila hau lortzeko, gora behera asko pasa behar dira eta esan bezala, proposatu dudana hezkuntzan txertatuz gero, lan mundura iristen direnerako, bi-dearen zati handi bat egina izango dute.

«Eskolan normalean izan behar du diruaz hitz egitea eta diruarekin ariketak egitea. Dirua ikuitu, gorde, trukatu, salerosketak egin, maileguak hartu eta eman, dena modu fiktizioan eta haurrak rol desberdinetan kokatuz. Diruaren aurrean beldurra galdu eta konfidantza irabazi behar dute»

Emakumearen aurkako indarkeria dela eta

Tere SAEZ, Nafarroako Berdintasun teknikarien izenean

Azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan da, eta bertze behin gisa honetako indarkeria salatu nahi izan dugu. Izan ere, Nazio Batuek aitortu bezala, oinarritzko giza eskubideen eta askatasunen urraketa larrienetako bat da. Horrekin batera, oroitarazi nahi dugu, nazioartean, Europan, estatu mailan, Nafarroan edo tokian tokian, indarkeria hau errotik kentzeko modua emakumeenganako dauden bazterketa guztiak desagertzea dela. Horretarako ezinbertzekoa da beraien eskubideak babestea, eta berdintasuna sustatzea. Ez da berdinen arteko gaztazka bat, ezta emakumeen arazo bat ere, oro har gizartearena baizik. Horregatik gizonezko eta emakumezkoen partehartzearekin gainditu beharrekoa da. Hamar urtez 800 emakumezko erail dituzte. 11 Nafarroan. Eta hori zatirik odoltsuena baino ez da; ikusten ez den indarkeria aunitz baitago. Une hauetan emakumeenganako indarkeria gelditu gabe hazteko lagungarri diren baldintzak daude. Munduko Osasunaren Erakundeak, Europako Parlamentuak eta Nazioarteko Diru Funttsak krisia, prekarietatea, pobrezia eta murrizketa politikaren eta emakumeenganako indarkeriaren arteko loturaz ohartarazi dute. Emakume aunitzek, pobrezia eta lan prekarietatearekin bereziki kaltetuak eta indarkeriaren kontrako baliabide guttiarekin, ez dute babes eta laguntza juridiko, labora eta sozialik aurkitzen. Eta hori bote-re publikoek aitzakiarik eta gibelatzerik gabe bermatu beharko liekete, bizitza, osasuna, segurtasuna eta duintasuna horretan joaten baitzaizkie. Genero indarkeriaren aurkako legea aplikatzeko lanean segitu behar da; estatu mailan eta Nafarroan, prebentziora eta biktimen arretara bideratutako gastu publikoan egin diren murrizketak lehengora itzuliz, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunera bideratutako aurrekontuko diru partidak berreskuratuz. Berdintasunean inbertitzea prebenitzea da. Genero berdintasuna ekonomiarako ona da, baita krisitik zuzentasunez eta justizian ateratzeko ere. Gure aldetik, urte osoan indarkeriarekin eta bazterketarekin bukatzeko lan egiten dugu, tokiko berdintasun estrategiekin –emakume, adineko eta adin txikienganako indarkeriaren aurkako prebentzio eta arreta programekin–, eta Bote-re Judizialaren Kontseilu Nagusiaren baitako Etxeko eta Genero Indarkeriaren kontrako Behatokitik. Denok elkarrekin gisa honetako indarkeriaren kontra egin behar dugu, eta Administrazio Publikoari eremu guztietatik indarkeria errotik desagertzeko neurriak har ditzan eskatu. Eta nola ez, erasotuak edo erailak izan diren emakumeei elkartasuna adierazi behar diegu, muturreko indarkeria sexistaren biktimak direlako.

«Berdintasunean inbertitzea prebenitzea da. Berdintasuna ekonomiarako ona da».

Prensatik bildutakoak



«Bertso-eskolek ibilbide handia egin dute, eta, batez ere, beraien funtzioak zein diren argitu dute. Sortu zirenean, bazuten bertsolaritza berpizteko nahia, baina ez zekiten fruituak emanen zituzten ala ez. Zalantza guztiak uxatu ditu bere garapenak».

«Argi utzi dute bertsolaria egin ere egin daitekeela, berezkoetik ere izan dezakeela baztertu gabe».

Erika LAGOMA
Lesakako bertsolaria
AIZU 2013.11



«Niri esan izan didate nire musika ez zela sobera erraza, sobera irratian paratzekoa, eta kritika baino, lorea iruditzen zait. Ez musikan ezertan, ez dut moldeetan sinesen. Zuk zure ustez egin behar duzuna egin behar duzu, zuretzat ona denaren bila joan. Moldean sartzea, erraztu beharrraren erraztu beharraz zure sorkuntza-pobretzea da».

Joseba IRAZOKI
Berako musikaria
ARGIA 2013.11.10

11 galdera labur

Zenbat urterekin etorri zineten Portugaldik Etxalarrera bizitzera?

Nik 4 urte nituen.

Portugal edo Etxalar duzu nahia-go?

Orain Etxalar. Ttikia nitzen etorri nintzenean eta orain lagunak eta dena hemen dut.

Herriko bertze edozein bezain ongi moldatzen zara euskaraz. Kosta zitzaizun ikastea?

Ez, erraz ikasi nuen. Orain portugesak baino nahiago dut euskaraz solastu.

Pilota, futbola... bertze kirolen bat egiten duzu?

Ez, bi kirol horiek egiten ditut. Pilotan 9 urte nituela hasi nintzen eta Lesakako Beti Gazte futbol taldean 10 urterekin.

Herriko pilota taldean dagoen neska bakarra zara, zer sentitzen duzu?

Ni gustura nago, ongi zaintzen naute. Nire ustez neskak ere egiten ahal dugun kirol bat da.

Musika arloan ere aipatzekoa. Zenbat musika-tresna jotzen dituzu?

Panderoa, jenbea eta saxofoia.

Bertzeren bat ikasteko aukera izanez gero, zein ikasiko zenuke?

Dudarik gabe bateria!

Gustuko musika talde edo abestiren bat?

Ez dakit, zaila da... Agian, Vendetta taldearen *Begietara begira* kanta.

Noiztik edo nondik heldu zaizkizu kirol eta musikarako zaletasunak?

Familian lehengusu eta osabak ere kirolean ibiltzen dira, eta anai-arrebak musikan ere bai.

Saltsera itxura duzu, juerga ere gustuko?

Bai, aunitz gustatzen zait lagunekin elkartu eta bestatara joatea.

Amets bat?

Ez dakit... Oraingoan, orain bezala segitzea eta nire familia ongi bizitzea.



Raphaella GOMES → Etxalarko kirolari eta musikaria (11 urte)

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

J. RAMOS
zolak akutxilatuta eta
barnizatzen dittut
Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berria erosai taldea

zalain
JATETxea - RESTAURANTE
Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

Urte xaharra Churrut Jatetxean, bai ederki!!
eh
HOTEL CHURRUT
...eta urte hasieran **EZKONTZA AZOKA!!**
Foruen plaza | BERA
T. 948 62 55 40 | T. 948 625 542
www.hotelchurrut.com
TALDEENTZAKO BAZKARIAK, EGUNEKO MENUA ETA BANKETEAK

2013. Urte Zakar Gaueko Menua
Gaijale JD ardatzazko ibarilak
Bixira eta barazkiak botatako etaako hostorea
Vichyssoise kremarekin
.....
Kuskiz botatako legatza obalako kremarekin
.....
Itxazpiara chip patata, pipar berde eta foie grasarekin
.....
Etaako gasta-musua txiki-izozkarekin
Eguberriatoko gazkiak
.....
Mahatsak, kotilloi poltsa, ura, ardoa, cava eta kafea barne
Bodegas Irache eta Codornia
.....
Prezioa: **65€** BEZ barne

Irakurleak mintzo

Zinea

Esteban AROZENA (Goizueta)

Igande arratsaldea, 16:30ak, argiak itzali, Itzaleko Felixek proiektorea pixtu eta... Txan, txan, txan,... NODO: Su Excelencia El Jefe Del Estado y Generalísimo de los Ejercitos Don Francisco Franco Baha-monde ha inaugurado el pantano de...

Diktadoreak autopropagandarako erabiltzen zuen "informatiboa" bukatu orduko eta aretoan geunden ehunka neska-mutikoen txalo artean hasten zen pelikula. Ordurako gastatua genuen etxean emandako duroa. 2'5 pezeta sarerra ordaintzeko eta gainerakoa Coca-cola botellin bat eta pipa zorro bat erosteko.

Ondorengo urteetan etxe guzietan sartuko zen telebistan ikusi aurretik guk ezagutzen genituen Raphael, Rocio Durcal, Marisol, Joselito, Pili eta Mili eta beste hainbat "niño prodigio". Dena den, "españoladak" biño askoz gusto-koago genituen "Romanoenak", "Azañas belicas"enak, edo Indio eta Bakeroenak esate baterako. Hauetan ez genuen sekula bukaerarik ikusten, apezaren agindua betez Felixek moztu egiten baitzuen eroia eta neskaren arteko musua. Txaloak eta txistuak nahasten ziren orduan eta hurrengo igande arratsaldea ailegatzeko zain gelditzen ginen.

Aipatutako guztia arratsaldeko 16:30etako sesioan gertatzen zen. Gu biño zaharxeagoak, 16-17 urtetik goitikoak, ilunabarreko 20:00tako-ra joaten ziren. Nik orduan ez nekien zergatik

zen biño haietako askorentzat berdin izaten zen botatzen zuten pelikula mota. Beste zeozeri ga-

rrantzi gehiago emanen zioten seguraski.

Eta nondik nora sortu zaizkit oroitzapen hau-

ek une honetan? Ba, orain dela egun batzuk herriko zinea bota dutelako. Hainbeste zen-

tzutan hain ilunak ziren urte haietan argi izpiak sortzen zituen ametsen fabrika.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

100€

opari Gas Naturalera ekartzen duzun adiskide (edo ahaide) bakoitzeko. Haiek ere hobaria jasoko dute!

Lagunek gurekin harremanetan jarri behar dute
900 333 456
telefono-zenbakira

gasNatural

BORTZIRIAK

HIRU MANKOMUNITATEAK

Langile finkoak funtzionario bihurtzeko erabakia inpugnatu du Nafarroako Gobernuak

Aldaketa gauzatu nahi bazuten lehendabizi estatutuak aldatu behar zituztela argudiatu du errekurtsioan

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskarra Mankomunitateak, Gizarte zerbitzuen Mankomunitateak eta Hiri

Hondakinen Kudeaketarako Mankomunitateak beren langile finkoak funtzionario bihurtzeko pausoa eman nahi zuten baina Nafarroako Gobernuak inpugnatu egin du erabakia.

Jose Javier Esparzak, Gizarte, Ingurumen eta Administrazio kontseilariak aurkeztutako errekurtsioan biltzen denez, Mankomunitateek eman nahi duten pausoa ilegala da, hitzarmena aurkeztu zuten garaian beren estatutuetan langileak fun-



UTZITAKO ARGAZKIA

Iker Maya beratarrak egin du Hiri-Hondakinen Mankomunitateko logo berria

Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateak logo berria du. «Gure irudia nahi genuen, egiten dugun kanpaina eta ekintza guztietan jendeak hori ikusita Mankomunitatea segituan identifikatu ahal izateko» diote Mankomunitatetik. Logoa Berako Iker Mayak diseinatu du eta Mankomunitatean egiten den lana eta "Bortziriak" kontzeptua, zonalde bezala, hainbat xehetasunetan biltzen ditu. Irudia adar bat da, Mankomunitateak ingurumenarekin erlazio estua baitu. Adar horren hostoak hondakin desberdinak erlazionatzen diren koloreekin margotuak daude (berde iluna, errefusa; marroia, organikoa; horia, ontziak; urdina, papera eta kartoia; eta berde argia beira). Hostoak bortz dira, Bortziriak bortz herriz osatuta dagoelako. Adarrak eta hostoek Bortziriak irudikatzen dute, herriak geografikoki modu horretan daudelako kokatuak. Alde batean, berde iluna Bera da eta marroia Etxalar. Bertze aldean, horia Lesaka da, urdina Igantzi eta berde argia Arantza.

tzionarioak izatea debekatzen zuen araua indarrean zegoelako eta ez dutelako lege foralak zehazten zuen epea bete. 19/2013 Lege Forala hartu zuten oinarritzat eskaria egiteko orduan eta honen 3. artikulua arabera aldaketa posible zen legea indarrean jarri eta bi hi-

labeteko epean. Hala, Nafarroako Gobernuak dio aldaketa gauzatu ahal izateko, lehendabizi estatutuak aldatu eta gero langileak funtzionario bihurtzeko prozesua martxan jarri behar zutela Mankomunitateak eta ez estatutuak eta langileen egotira batera aldatu.

KONPOSTA

Donezteben egin bezala, Lesakako ferietan ere konpostajearen inguruko karpa paratuko da. Konpost freskoa eta ondua ikusi, ukitu eta usaintzeko aukera eta urtarrilean hasiko den kanpaina parte hartzeko izena emateko aukera izanen da.

GOYA DENDA

Altzate, 5 - BERA
T. 948 630 083



aprobetxatu gure saldo
eta deskontu bereziak!

-%20

(Urtarrilak 7 arte)

- Etxeko batak
- Laneko arropa
- Sukaldari arropa
- Alfonbrak
- Lanparak
- Baserritar jantziak
- Beirateria



GIZARTEA → AZAROAREN 15EAN BERALANDETAN

Elkarbizitza eta bakea sustatzeko programa aurkeztu du Udalak

Nafarroan gisa honetako programa martxan paratzea erabaki duen lehena da

herritarrek zuzenean parte hartzea, eta programaren xehetasunak herritarrei aurkezteko ekitaldia egin zuten azaroaren 15ean Beralandetan. Ekitaldia girotzeko Gorka Espiuren *Hablan los ojos* dokumentala eskaini zuten.

Programak lau lan-ildo nagusi izanen ditu: alderdi politikoekin bat; herritarrekin bertzea; hezkuntza arloan hiru-garrena; eta dibulgazio modukoa laugarrena.

Euskal Besta prestatzen hasteko bilera larunbatean

«Gure herrian eta instituzioetan ikurri-ekin egon behar duela pentsatzen dugu, berte euskal ikurrekin batera eta ez inposatutako kanpoko banderarik». Aldarrikapen hau egiteko intentzioz, herriko gazteei Euskal Besta bat egitea bururatu zaie eta hori prestatzen has-



ARGAZKIA: JOSU INCIARTE

Ile-mozketak eta orrazketak ANFASen alde Yoan ileapaindegian

ANFAS erakundeari laguntzeko elkartasun ekintza egin zuen azaroaren 16an Yoan ileapaindegia. Egun horretan, arratsalde egindako ile-mozketa, orrazketa eta makillaje saioetan lortutako diru guziaz ezintasun psikikoren bat duten pertsonen laguntzen dien erakunde horrentzako izan zen. Jende aunitz hurbildu zen eta diru guztia ongi etorriko zaie, zailtasun ekonomikoak dituelako elkarteak eta langile batzuk soldatak kobratzeko arazoak ere izan dituztelako.

teko bilera deitu dute azaroaren 30erako. Larunbat arratsaldeko 4etan izanen da hitzordua Beralandetan eta bakoitzak ahal duen heinean laguntza ematea proposatzen dute, «edozein laguntza ongi etorria izanen da».

Nafarroako Eguneko kontzertua

Nafarroako Eguna ospatzeko emanaldia eskainiko du Garralda-ko Abesbatzak abenduaren 3an, asteartean 13:00etan Kultur

Etxean. Nafarroako Gobernuak antolatu du ekitaldia.

Musika kontuekin segituz, abenduaren 13an Lesakako bandak kontzertu pedagogikoa eskainiko du 19:30ean Kultur Etxean (sarrera 3 euro).

Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolan ere, Eguberri inguruko entzunaldiekin hasiko dira. Abenduaren 10ean trikitixa-akordeo entzunaldia izanen da 18:00etan. Abenduaren 17an biolin entzunaldia eskainiko dute eta 18an

Eguberrietako kontzertua.

Biomasa galdaren obrak hasi dira

Biomasa galdarag egiten hasi dira kiroldegien gibelean, iazko aurrekontuan onartu zen bezala. Bi galdara hauek egur ezpala erreko dute Toki Ona Instituta eta kiroldegia, Muxiku Haur Eskola, Ricardo Baroja Eskola eta Labiaga Ikastola berotu ahal izateko. 304.000 eurotan esleitu dira lanak eta %50eko dirulaguntza du.

ABENDUAK 3

BERAn

Agara Kirolak

Arturo arropadenda

Martutzak arropadenda

Zela Kirolak

irekiak

gehiago ematen dizugu

IREKITA: 9:30-13:00 • 16:30-20:00

-%20

-%20

-%20

LESAKA

KULTURA → ANDRES INDURAIN IRUNDARRA GARAILE

Argazki lehiaketako sariak banatu ditu Beti Gaztek

Abenduaren 3ra arte ikus daitezke 105 lanak egoitzan

Aitor AROTZENA

38 argazkilarik 105 argazki aurkeztu dituzte Beti Gazte elkarteak antolatutako lehiaketara, azken urteetan baino gutxiago. Halere, arrakasta handia izan du, Lesakako eta Nafarroako argazkilariez gain, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Alikante, Logroño, Katalunia, Madril, Valladolid, Burgos, Salamanca, Zaragoza eta Valentziako egileen lanak ere ailegatu baitira.

AFiko Gerardo Garcia eta Jesus Hernandez irundarrek eta Berako Juan Carlos Olaetxeak osatutako epaimahaiak lehenbiziko sa-



UTZITAKO ARGAZIAK

Lerro hauen gainean, lehiaketa irabazi zuen *Todo por la revolución* argazkia. Ondoan, goitik beheiti *Faroles* (2. saria), *Jawi* (kirol argazki onena) eta *Jonan*.

ria Andres Indurain Gutierrez irundarrari eman zion, *Todo por la revolución* izeneko argazkiarekin. 350 euro eta garaikurra eskuratu ditu. Bigarren saria (250 euro eta garaikurra), Tolo-sako Jose Maria Arrigain Ijurrarentzat izan da, *Faroles* izeneko lanarengatik.

Kirol argazki hobere-

narentzako saria, 200 euro eta garaikurra, Javier P. Fernandez Ferrasek eskuratu zuen, *Jawi* argazkiarekin eta Fidel Ordoki Fagoaga argazkilariak Lesakako egile hoberenarentzako saria lortu zuen, *Jonan* argazkiarekin. 200 euro eta garaikurra eskuratu ditu lesakarrak ere.

Argazki guztiak Beti



Gazte elkartearen egoitzan daude ikusgai abenduaren 3a bitarte, astelehenetik larunba-

ta arte, arratsaldeko 7:00etatik 8:30 arte eta igandetan: 11:30etik 13:00etara.

FLASH

Zerbitzuen Elkarteko tonbola

lazko arrakasta ikusita, aurtan ere tonbola antolatu du Zerbitzuen Elkarteak. Banatutako txartelekin sariak eskuratu ahal izateko, azaroaren 30ean aterako dituzte zenbakiak, 19:00etatik aitzinera plazan. Pintxoak eta edariak banatuko dira.

Ezagutu Dezagun Lesaka

Lehen Hezkuntza eta DBH ikasten duten herriko ikasleei zuzenduta, aurtan ere *Ezagutu Dezagun Lesaka* lehiaketa antolatu du Beti Gaztek. Abenduaren 13rako aurkeztu behar dira 30 galderei emandako erantzunak eta 20an banatuko dira sariak.

Lan eskaintza Zahar Etxean

Andra Mari Zahar Etxeak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez bilan-poltsa (zaintzaileena eta zaintzaile laguntzaileena) ireki nahi ditu bertan sortzen ahal diren beharrei erantzuteko. Abenduaren 9a da kurrikulumak aurkezteko azken eguna.

Santa Zezilia Eguna doinuz doinu

Herriko musika taldeek emanaldi ederra eman zuten. Abesbatzak udalletxean, soinulariak arrikupetan, trikitilariak Mendegia harategiaren parean, txistulariak kioskoan eta musika banda Kasino parean aritu ziren. Biharamunean kalejirak egin zituzten.

Etixerako su-egur loteak eskatzeko

Azaroaren 29an bukatuko da etxerako su-egur loteak eskatzeko epea. www.lesaka.net webgunean edo 948 637 005ra deituz egin daiteke. Loteak 5 Tona ingurukoak dira eta Zambrako zelaira garraiaturako dira. Lote bakoitzak 200 euro inguru balio du.

3EKO
JARDINERLANBERRIAK
Frais Autzen - LESAKA
Tfnoa: 948 637 806

Lentzena
Bainuzak
Mertzena
Jantz Ipikoak
Pelen busak
kattogorria
Behoko plaza 10 30770 Lesaka
T. 948 627 514

Javier Manterola
Tehnika instalatzailea
Iturgintza • gasa
kalafakzioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

IRU BIDE
Erretegia - Akadur
Barrutia, 3 - Lesaka
Tel: 948 637 127

XATURETXEA
ZABALA
JATETXEA
T: 948 637 260 - LESAKA

GIZARTEA → EHIZA DENBORALDIA

80 dozena uso harrapatuta akabatu da aurtengo sasoia

Eguraldia kontuan hartuta ez da batere sasoi ona izan

Irune eta Itsaso

Azaroaren 16an sasoi bukaerako besta egin zuten usazaleen etxolan. 40 lagun inguru bildu ziren eta giro ederrean bazkaldu zuten Litri akordeoilariak alaituta. Usategietako ehiza sasoi ofizialki azaroaren 20an akabatu bazen ere, egun pare batzuetan segitu zuten sareak jartzen. Aurtengoa eguraldi aldetik sasoi txarra izan da; urrian hilabete ia osoan haizegoa izan zen eta azaroan berriz euria. Sasoi 50 egunetatik 30 egunetan jarri ahal izan ziren sareak eta urriaren 30 eta 31 izan ziren egunik garrantzitsue-

nak, 19 eta 18 dozena uso harrapatuta.

Bisiten aldetik berriz, aurtun haizego egun aunitz izanik, inoiz baino jende gehiago animatu da bisita gidatuak egitera. Denera 450 lagunek egin dute, hala aitzineko urteko bisitariak bikoiztu dira.

Bertalde aurtun komunikabide aunitz etorri dira tradizio hau eza-gutzera: Euskal Telebista, Euskadi Irratia, Xaloe Telebista, Tele 5, Navarra TV, Radio Marca, Radio Irun, Euskalerrria Irratia... Etb1eko "kontrako eztarria" programan ere parodia egin zieten usazaleei.

Usategietako boletoen zenbaki saridunak

Azaroaren 15ean egin zen boletoen zozketa eta hauek dira zenbaki sarituak.

1. saria: 12 uso bizi-



ARGAZKIA: AITZIBER MUJIKA

Azaroaren 8an Landagain eskolako ikasle eta irakasleak Usategietara bisita egin zuten. Eguraldiak lagundu ez zuelako, ezin izan zuten pentsatu bezala Lizaietaraino ailegatu. Joandako 72 ikasleak, azalpenak entzun, bideoa ikusi eta paleta txapelketan parte hartu zuten. Irabazleek diploma jaso zuten eta Usategietako 3 kamiseten zozketa ere egin zen.

rik, 346 zenbakia; 2. saria: 2 lagunentzako aforia Elutsa ostatuan, 141 zenbakia; 3. saria: Usategietako produktu lotea, 318 zenbakia.

Lehenengo saria Landaburukobordara joan da eta bigarren eta hirugarren zenbakiak dauzkatenek hiru hila-beteko epea dute 690267756ra deitzeko.

Boletoen salgai Altxatako dantza taldearen alde

Asteburu bateko egonaldia, 2 lagunentzako otordua eta janari eta edari sorta bikaina zozketatuko dira abenduaren 24an, 20:00ak inguruan frontoian.



ARGAZKIA: LAURA ELIZAGOIEN

Usategietako gastronomia lehiaketa

Azaroaren 15ean egin da Usategietako gastronomia lehiaketa. 12 jatetxek parte hartu dute bertan eta Lesakako Kasinok eraman du urrezko paleta. Zilarrezko paleta berriz, Elizondoko Santxotena-arentzat izan da eta berrikuntza saria Iruñeko Trujillo jatetxeak irabazi du (joan den urteko irabazlea izan zena). Lehiaketa honetara herriko 2 jatetxe aurkeztu dira; Etxalarko Benta eta Elutsa ostatu.

XAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax BERRIA:
948 638 232
Koskontako bidea, 7
31770 LESAKA

Zatuz denda hona eragutzi!

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

USOA
Nekazari kooperatiba

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongarriak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edariak - Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etxez etxeko banaketa egiten da Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

ERREKALDE

Plater kooperatiba

Platerak

Rozketak

Tel. 948 630 259 BERA

ERROTARZ

harategia

Bertako produktuak

Etegarra, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

ARANTZA

HEZKUNTZA → URTEKO HITZORDUA

Abenduaren 19an antzerki emanaldia izanen da eskolan

Antzerkia lantzen ari dira 2. eta 3. zikloetan

Nerea ALTZURI

Lehenengo hiruhila-beteariakabera emateko ekimen batzuen inguruko xehetasunak jasoko ditugu eskolatik.

Abenduaren 19an, ortzeguna, eskolako antzezlanak ikusteko aukera izanen da. Aurtengo ikasturtean, berrikuntza gisa, Raul Garcia beratar adituarekin, astearte arratsaldero, antzerkia lantzen ari dira bigarren eta hirugarren zikloetan. Helburua ikasleak bere barreneko aktore eta artistarekin esperimendatzeko da: batetik, begirada, entzumen eta ulertzeko modua garatzen dira, eta bertetik, norbere eta berteen lanarekiko errespetua eta estimua.

Hainbat elementuren jostatzen dira: espazioa, mugimendua, gorputza eta bere mugikortasun zein aukerekin, bako-

tzaren keinu eta dantzarekin. Bertzeekiko harreman eta kontaktu fisiko eta emozionalak abiatzen da norbere lana. Hatsarekin, bozarekin, hitzarekin, kantuarekin, musikarekin, objektu erreal edo imajinarioekin, eta abarrek bidaia izanen da.

Honetarako ezinbertzekoa izan da Guraso Elkartearen laguntza.

BARATZEA

laz egindako baratzean, udazken-neguko produktuekin ari dira. Tipula, porrua, aza, eskarola eta pella landatu dituzte. Eta sukaldeko zabor organikoarekin konposta egiten segitzen dute.

Bertetik, bide hezkuntzarekin loturiko jarduerak egiten ari dira. Bi egunez, ikasleek ekintzak egin zituzten Foru Poliziko ordezkariarekin.

GABONETAKO ZAREA

Eskolako ikasleak zarea osatzeko produktuak ekartzen hasiak dira eta zozketarako txartelak saltzen. Zozketa antzerki saioetan egiten dute.



ARGAZKIA: AITOR ELEXPURU

Eskolako ikasleak baratzean.



ARGAZKIA: RAFAEL ENETERREAGA

Pascual Aldabe musikagile zena omendu du Giltzarri abesbatzak

Azaroaren 9an, mezondan, Giltzarri abesbatzak, Pascual Aldabe lesakar konpositore zenaren omenezko kontzertua eskaini zuen. Joan den udaberrian hil zen konpositore lesakarra, 88 urte zituela. Kalitatezko emanaldia izan zen, kontzertu goxoa eta fina eskaini zuten eta jende multzoa bildu zen ekitaldi honekin gozatzerako. Isabel Lacar Abril lesakarraren zuzendaritzapean, Giltzarri abesbatzak-Elizondoko abesbatzako kantariak ere baziren, Lakar bi abesbatzetako zuzendaria baita- hamabi kanta eskaini zituzten, tartean, Aldabek berak konposaturikoak. Emanaldiaren ondotik, Matixa Aldabe konpositorearen alabak eskultura lan bat hartu zuen abesbatzako zuzendariaren eskutik. Aldabe zenaren familiakoak ageri dira irudian.

BIDEO KLIPA

Eskolaren mendeurrenaren harira, bideo-klipa atera zen ekainean. Jendearen eskaria dela eta DVDak salgai daude Jaio-

neren janari-dendan eta Apezenean.

2014KO EGUTEGIAK

Guraso Elkartek aterako 2014ko egutegiak

salgai daude 5 eurotan. Eskolako ikasle eta irakasleak ageri dira eta hagitx polita da. Laguntzaile guztiak eskertu nahi ditu Guraso Elkartek.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- ☛ Langile autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-Kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea

- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitortpenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☛ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESABA: Bittirio, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050

BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

LESAKAKO UDAL KIROLDEGIA

KULTURA → URTERO BEZALA EUSKARA BATZORDEAK EGITARAU ZABALA PRESTATU DU

Kultur Egunak abenduaren 6tik 8ra izanen dira

Gazta lehiaketaren hamargarren edizioa egingen da igandean

TTIPI-TTAPA

Euskara Batzordeak prest ditu aurtengo kultur egunak. Abenduaren 6tik 8ra bitartean mota guztietako ekitaldiak prestatu ditu, horietako batzuk Sanmigelen aitzineko asteburako programatuak zirenak dira, Saioaren zoritxarreko istripuarengatik bertan behera gelditu zirenak.

ORTZIRALA, ABENDUAK 6

- 16:00etan haurrentzako pelikula bat izanen da eskolan.
- 17:30ean bi orduz, eskolako ordenagailuen gela irekia egonen da, nahi duen guztia joateko.
- 21:00etan Baratzondon, *Bat-batean*. Munduko musikekin bertsoan izeneko emanaldia izanen da. Ikus-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Eguraldiak laguntzen badu frontoian egingen da gazta lehiaketa eta bertzenaz Biltokin.

kizun horretan Oskar Estangabertsolari eta musikariak eta Miel Mari Elozegi Luze bertsolariak, munduko kantu eta doinu ezagunekin osatutako bertso saioa eskainiko dute, hainbat musika tresnaz lagundurik.

LARUNBATA, ABENDUAK 7

- 16:30ean hasita herriko dantzariak karri-

kabuelta egingen dute, zenbait tokitan beren dantzak eskainiz. Bitartean, euskara batzordeko kideek herriko zenbait etxeri errotulua paratuko diote.- 18:00etan dantza taldeak saio labur bat eskainiko du frontoian.
- 21:00etan teatroa izanen da Baratzondon. Txirene taldeak *Sarean zintzilikaturik* antzezlan eskainiko du.

IGANDEA, ABENDUAK 8

- 11:30ean haurren arteko herri kirol saioa izanen da frontoian. Lehiatuko direnak Igantziko eta Basaburuko neska-mutikoak izanen dira.
- 12:00etan Igantziko X. Gazta Lehiaketa izanen da. Urtero bezala, herritarrek ekarritako gaztak dastatu beharko ditu epaimahaiak. Ondotik banatu-

EUSKARA

Errotulua paratzeko eskatu dute herriko 86 etxetan

TTIPI-TTAPA

Kultur Egunetako egitarauan irakur daitekeenez, herriko zenbait etxeri errotulua paratuko zaie abenduaren 7an, dantzarien herri bueltarekin batera. Gainerakoak abenduaren 9tik 22ra bitartean paratuko dira, aitzinetik eskaera egin duten etxeetako jabeekin solastuta. Guztira 86 izan dira errotulua paratzeko eskatu duten etxeak.

ko dira sariak. Eguraldia lagun, lehiaketa frontoian izanen da, eta, bertzela, Biltoki elkartean.

- 17:00etan trikitixajaldia izanen da frontoian. Bertan parte hartuko dute herriko trikitilariak eta panderojoleak, baita inguruko hainbat herritakoek ere.
- 18:00etan berendua izanen da frontoian. Opilez eta sagardoaz gainera, lehiaketako gaztak dastatzeko aukera ere izanen da.



SUNBILLA



ARGAZKIA: ONDIKOL

Honela gelditu zen Josetxo Ganboak gidatzen zuen autoa.

GERTAERAK → AZAROAREN 12AN

Auto istripuan hil zen Josetxo Ganboa

Ustez, bihotzekoak jo ondotik, gidatzen zuen autoaren kontrola galdu eta amildu zen

Maider PETRIRENA

Sunbillako herriak al-biste txar bat izan zuen azaroaren 12an. Goizeko 10:20ean istripu baten ondorioz Josetxo Ganboa Zubietan hil zen. Josetxok bizi guztia igeltsero bezala egina

zuen lan eta orain dela bi urte gutti goiti behe-ti jubilatua zen. Ulibeltzak Elkarteko bazkidea zen eta bere afizioetako bat ehizara joatea zen. Doluminak bere familiari.

Lapurretak

Azaroaren 1, 2 eta 3ko asteburuan lapurreta izan zen behe-tiko eskolan, eta hurrengo as-

Ba al zenekien

bigarren aldiz egingen dela Sunbillan Malerreka Kantuz abenduaren 7an. Udaletxetik aterako dira kantariak eguerdiko 12etan.



ARGAZKIA: JOSETXO APEZTEGIA

Basurdetan fuerte dabilta ehiztariak

Azaroaren 9an ehiztariak fuerte ibili ziren eta zazpi basurde hil zituzten. Irailaren 1ean ireki zen basurdea ehizatze denboraldia eta otsaila bitarte izanen dute aukera. Guztira 52 basurde inguru hil dituzte dagoeneko.

teburuan berriz, azaroaren 9 eta 10ean, Zumalekuko bordan eta Elortxurin.

Olentzeroko entsaioak

Azaroaren 29an eta abenduaren 13an, arratsaldeko 4etatik aitzinera egingen dira frontoian olentzeroko entsaioak.

Ulibeltzak obretan

Ulibeltzak Elkartea azaroaren 18tik aitzinera itxita dago, konponketa obrak dirarela eta.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Herriko soinu-joleak Aurtizko bestetan

Azaroaren 9an trikitixa eta pandereta jaialdi ederra eskaini zuten Mendaur trikitixa eskolako ikasle eta irakasleek Aurtizko bestetan. Tartearen Sunbillako neska talde polit batek parte hartu zuen: Naroa Petrirena, Iraide eta Garaine Iriarte, Maialen eta Iradi Arretxea, Magaly Mariñelarena eta Saray Bazterrikak. Zorionak partehartzaile eta antolatzaileei.

ZUBIONDO
Jatetxea
agardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
Tel: 948 625 474

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

ORBELA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAREN
orbela@beintza-labaren.com
www.orbela-beintza.com

BERA
Zure inguruak klase guztietako insektuz (xomorro, zinourre, armiarmu, kukuxu...) eta erratei xagutuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak
GOIEKO Industria Gerbitasun Produktuak
Tel: 948 625 597 • Zalein, 42 A • BERA

sarobe
gozategia okindagia
pr. de eretegia 25 bejo
34700 bera-inevama
1.948 6308 99
www.sarobe.net

Xirail
Altza 1 - BERA
Phone 948 631 488

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → ABENDUAREN 13KO JOSTUNEN EGUNEAN

Enrique Taberna omenduko dute Santa Luzia egunean

Zilarrezko Titarea eskuratuko duen bigarren gizasemea da

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 13an ospatuko da Santa Luzia eguna eta azken urteetako ohiturari eutsiz, besta eguna antolatuko dute Udalak eta Ceder-na-Garalurrek. Oraindik egitaraua erabat zehaztu gabe baldin badago ere, eskulangileak izanen dira elizatarian eta meza ondotik, Zilarrezko Titarea emanen dio udalak jostun bati. Aurtengoan, Enrique Taberna izanen da omendua. Hain zuzen, sari hau jasotzen duen bigarren gizasemea izanen da. 2000. urtean Patxi As-tiz-i eman zioten.

Burrunbako bertso afaria

Gazte Burrunba elkarteak antolatutako bertso afaria egingen da azaroaren 30ean San-



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Giro ederra izan zen Udazkeneko Ferietan

Udazkeneko giro bikaina izan zen feria eguneko goizean. Normalean baino postu etaazienda guttiago ikusi ziren, baina eguraldi eguzkitsua ikusiz, eguerdi parterako jendetza bildu zen herriko karriketan. Behi batzuk eta zaldiak, behorrak, poniak eta astoak ere ikusi ziren. Arratsaldean eguraldia aunitz narrastu zen eta jende guttiago ibili zen karriketan, baina frontoiak lepo egin zuen Nafarroako aizkolari txapelketa eta bigarren mailako arpana txapelketa ikusteko.

tamari jatetxean. Jon Maia eta Iñigo Manzidor *Mantxi* bertsolariak ariko dira kantari. Sarrerak salgai daude oraindik Titi ostatuan. 25 euro bazkideenda-

ko eta 30 euro bazkide ez direnendako.

Bi filma abenduaren 8an

Guraso elkarteek an-

tolatutako zinema emanaldiak izanen dira abenduaren 8an. Igan-de arratsaldeko 4:30ean *Rompe Ralph* eskainiko dute eta 6:30ean *Avatar*.



Pertsonaia

Julen SAN MIGUEL

Belauneko lesioaren ondorioz binakako txapelketatik kanpo

Belaunetako bihurritu baten ondorioz bi aste eman beharko ditu frontoietatik urrun Julen San Miguel atzelariak. Ondorioz, joan den larunbatean binakako txapelketako laugarren partida jokatu beharra zuen Etxabe II. arekin batera Uterga eta Ionnen kontra, baina 40-0 galdutzat eman diote. Gisa honetara, txapelketatik kanpo dagoela erraten ahal da. Penarik handiena bere aurre-lariarengatik ematen diola adierazi du San Miguelek, «ilusio handiarekin zegoelako». Dena den, aitzinera begira, lehenbailehen errekuperatu nahi du.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

FANTXIKE

%10eko
DESKONTUA
30€tik gorako
gastuan



ITUREN

NARBARTE

GIZARTEA → PROPOSAMEN EZBERDINEN ARTEAN ITURENDARRARENA AUKERATU ZUEN UDALAK

Karlos Etxebestek hartu du Herriko Ostatuaren ardura

Laister irekiko ditu berriz ateak

Arkaitz MINDEGIA

Azken ttipi ttapan aipatu bezala iturengo Herriko Ostatuak itxirik zerman denbora pixka batez. Udalak, asko luzatu gabe, lehiaketara atera zuen interesatuak bilatu asmoz. Azaroaren 6an akitu zen proposamenak aurkezteko epea eta aurkeztu ziren proposamenen artean, Karlos Etxebeste herri-tarrarena aukeratu dute. Dagoeneko Karlos ari da ostatuan moldaketa lanak egiten eta laister irekiko du berriz.

San martin bestak

Eguraldiak ez zien lagundu aurtiztarrei San Martin bestetan. Hala ere, ekitaldi asko zituzten antolatuak eta denak burutu ziren, arrakastarekin gainera: herritarren arteko pilota txapelketak, herri kirolak, trikitixa jaialdiak, azo-



UTZITAKO ARGAZKIA

Eremu berriak sortzen ari dira eskolan

Nahiz eta Nafarroako Gobernuak murrizketekin jarraitu eta Iturengo eskola berria beraien eginkizunen barruan ez sartu, betiko eskolan eremu berriak sortzen ari dira, ezinezkoa ematen duen tokietan. Aurtengo ikasturterako Udalak gela berria sortu du lehen fitxategiak ziren bi gelatxoetik eta jantokia haunditzea lortu du. Eskolatik eskerrak eman nahi dizkieta udalari etal lagundu duten guziei: «M^a Joxe alkatesa eta zinegotziak; Mikel eta Amaia idazkariak; udako langileak (Joxe, Peio, Jokin eta David) eta Alazne, Irlandan dugun marrazkilaria artista haundia. Pulunpa eskolatik 72na muxu!».

kak... eta nola ez herri guzia biltzen duen herri bazkaria. Giro bikainean bapo bazkaldu ondoren, bazkalostea Joxeangel eta Erramun Martikorenaren kantuekin eta Iñaki Aleman eta Ander Lizarralde ber-

tsolarien bertsoekin aforiko tenorea ailegatu arte belarriek goxatu, gorputzak mugitu eta giro onaz gozatu zuten herriarrek. Zorionak antolatzaileei! Guttiago falta da 2014ko Sanmartinetarako!

Pulunpa eskola

Eskolako irakasle eta ikasleek Zubietara joateko asmoa zuten, baina giro hotz eta eurisuaren ondorioz, aurretik alean aipatu genituen ateraldiak bertan behar utzi behar izan zi-

GIZARTEA

Haurrendako janari eta jostailu bilketa egingen da

Martin BERTIZ

Oraindik zehaztu gabe daude xehetasunak baina aurreratu genezake janari eta jostailu bilketa egitekoa dela herrian. “Mutuo-Elkarrri Laguntza” deituriko erakundeak antolatu du, Nafarroa mailan hipotekek afektatutako en plataformak. Bilketa noiz eta non egingen den zehazten duten kartelak laister jarriko dira herrian barrena.

Eguberrietako zaretoak

Eguberri partean ohitura bihurtu dira azkeneko urteetan Esther janari dendako zaretoak. Nahi izanez gero euro baten truke izena eman eta zortea tenta dezakegu.

tuzten. Hori bai, egin gabe utzitakoak aurrerago egiteko asmoa dute. Hortaz, Zubietako herria bixitatu, errota ikusi eta ginkana eta talo tailerraz gozatzeko aukera gabe ez dira geldituko herriko ttikienak.

GIZARTEA

GIZARTEA → UEMAREN PROPOSAMENA NAFARROAKO PARLAMENTUAN

Osasun etxe eta liburutegietako zerbitzuak euskalduntzeko neurri zehatzak proposatu ditu

TTIPI-TTAPA

Instituzio publikoek herritarren eskubideak urratzea larritzat jo eta Nafarroako “zonalde euskaldunean” admi-

nistrazioak euskarazko zerbitzua eskaintzeko betebeharra duela gogora ekarri dute Eneka Maiz eta Jon Abril, UEMAKo ordezkariak azaroaren 19an Nafarroa-

ko Parlamentuan egin-dako agerraldian. Osasun etxe eta liburutegien euskalduntzeko bidea elkarlanean egiteko borondatea ere agertu dute. Hala, instituzio-

en arteko elkarlanetik haratago jo eta hainbat eragileren ekarpenak ere jasotzea beharrezkoa dela azpimarratu nahi izan dute. Adibide gisara eta liburu-

tegietako kasuari lotuta, ASNABI Nafarroako liburutegien elkarteak aipamena eginez.

Osasun zerbitzuak euskalduntzeari lotuta, lehentasunak eta epeak zehaztuta, plangintza osoa kudeatzeko lantaldea osatzea proposatu du UEMAK. Eta garrantzitsutzat jo du udalek eta OEE (Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak) ere lan

ELGORRIAGA

KULTURA → BI ANTZEZLAN SEGIDAN ESKAINIKO DITUZTE AZAROAREN 29AN

Antzerki gaua izanen da ortziralean Herriko Ostatuan

Divina Locura eta Teatro que madura taldeek emanaldiak eskainiko dituzte

Mattin LARRALDE

Herriko Ostatuan antzerki gaua izango da azaroaren 29ean. Saioa ortziral arratseko 10etan hasiko da eta bertan ikusiko dugu Divina Locura taldearen *org.amen* antzezlan eta Teatro que madura taldearen *Nunca se sabe*.

Zorroilo besta

Urtero egiten da azaroaren akabilan Zorroilo elkarteko urteko besta. Aurten azaroaren 30ean izango da. Goizez txetelaren tiraketa



ARTXIBOKO ARGAZKIA:
Zorroilo elkar-
teko besta
txetelaren tirake-
ta izanen da
aurtegoan ere.
Larunbat hone-
tan ospatuko
dute.

izanen da. Ondoren bazkaria eta arratsaldez katxondeoa eta ongi pasatzeko gogoia, agian sorpresatxoren batekin.

Neguko auzolana

Neguko auzolana azaroaren 23an egin da. Bertan herrian inguruan diren bideak, herriko almazena eta bertze zenbait gauza garbitu

eta txukunduko dira. Udan herrigunea apaintzen da eta neguan bideak eta herri inguruko lanak egiten dira. Lehen euriakin ere lurra mugitu da. Hobe erranda, harriak bidera erori dira, zuhaitzen bat ere bai eta joan den larunbateko auzolana aprobe-txatuz txukundu dituzte bazterrak.

Aita-semeak Behobia-Donostian

Aurten ere Behobia-Donostia lasterketan parte hartu dute herri-tarrek. Azkeneko bi urtetan bezalaxe Jose Ignacio Olazar lasterka aritu da eta aurten Xabier bere semea izan du bidelagun. Zorionak eta eutsi horri!

KULTURA

Durangoko
Azoka prest
abenduen
5etik 8ra

TTIPI-TTAPA

Kulturaren plaza bihurtuko da Durango abenduaren 5etik 8ra bitartean. 48. edizioa du aurtengoa azokak eta kultur eskaintza Landako gunetik haratago zabaltzea da antolatzaileen asmoa. Zortzi gunek osatuko dute azoka eta Kultur Gunean eta Zinemaren ere ekitaldiak antolatuko dituzte. Bisitariek argialetxe eta diske-txeek proposatzen dituzten berrikuntzak ezagutu, zuzeneko musika emanaldiez gozatu, euskarazko pelikula edo antzezlanak ikusi, tailerretan parte hartu... egun osoan zehar euskal kulturaz gozatzeko ha-maika aukera izango dituzte eskura.

48. **DURANGOKO
AZOKA**
kulturaren plaza

2013ko abenduaren 5etik 8ra



@durangokoazoka

www.durangokoazoka.com



ZUBIETA

GIZARTEA → ERABILERARI BURUZKO INFORMAZIO BILERA EGIN ZEN AZAROAREN 13AN

Malerrekako lehen auzo konpostatzailea jarri dute herrian

Fermin ETXEKOLONEA

Auzo konpostajeari buruzko mintzaldia eman zuten Hiri-Hondakinen Mankomunitateko Txomin Elgorriagak azaroaren 13an eta hamabost bat lagun bildu ziren. Bortzirietan duela urtebete inguru jarri bazituzten ere, Malerrekako lehenbizikoa da Sekretarioaren etxeke baratzean paratu dutena. Informazio kanpainak egingen dira eta Mankomunitatetik kontrola ere eramanen dute.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Behobia-Donostia

Behobia-Donostian herriko zazpi ordezkari izan ziren eta ongi ibili ziren denak. Urko Loiar-te izan zen azkarrena

Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateko Txomin Elgorriagak eman zituen azalpenak.

(ordubete eta 27 minutu), Igor Babazek segundo batzuk gehiago behar izan zituen. Joxe

Mari Indakoetxeak ordubete eta 29 minutu, Sergio Fagoagak ordubete eta 33 minutu, Mi-

kel Indakoetxeak ordubete eta 37 minutu, Patxi Indakoetxeak ordubete eta 38 minutu eta

David Juanikorenak ordubete eta 39 minutu. Eguraldi haizetsua izan arren kontent gelditu ziren beraien markekin.

Xorroxinlarien bazkaria

Xorroxin Irratiko laguntzaileen urteko bazkaria azaroaren 30ean egingen da herriko estalpean. Xorroxingo langileen eta udalaren laguntza izanen dute.

Herriko ostatua Airam-en kontzertua

Abenduaren 6an, Barañaingo Airam kantautore eta konposatzaileak kontzertua emanen du Herriko Ostatuan, 22:00etan.

BEINTZA-LABAIEN

GIZARTEA → AZAROAREN 16AN ELKARTU ZIREN

Boroseneko Jose eta Txispeako Bittor Ameriketatik bisitan bueltatu dira

Labaiendarrek afari batekin egin zieten ongietorria

Arantxa ITURRALDE

Ospakizun berezia izan zuten labaiendarrek azaroaren 16an.

Ameriketatik etorri-

tako Jose Telletxeari eta Bittor Albisturri, herritarrek ongi etorri bero bat egin zieten. Horretarako ostatua afaltzeko bildu ziren larunbatean. Giro paregabea izan zen eta afal ostean, Anjel Estangak bere akordio-naren laguntzarekin kantuan eta dantza egiteko aukera eskaini zu-



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Jose Telletxea eta Bittor Albistur bisitan izan dira Labaienen eta herritarrek afari batekin egin zieten ongietorria.

en. Badira urte batzuk bilabaiendar hauek Estatu Batuetara joanak zirela. Boroseneko Jose

Telletxea 25 urte zituelarik atera zen herritik Kaliforniara, Novatora hain zuzen ere. Txispea-

ko Bittor Albistur, aldiz, 21 urterekin abiatu zen. Gaur egun Fresno bizi da.

EZKURRA

GIZARTEA → AUZOLANEAN EGIN DUTE

Herriko interes guneak berriro ere seinalizatuta daude

Aurretik zeuden seinaleak norbaitek puskatu zituen

Fernando ETXEBERRIA

Duela urte batzuk te-
lebista eta prentsan gu-
re herriari buruzko erre-
portajeak ateratzen ha-
si ahala, asko izan ziren
bertako paisaia, mendi
eta monumentuak ikus-
teko asmoz bertaratu
ziren bisitariak. Bidean
ordea ez zegoen seina-
lerik, eta beharrezkoak
zirela ikusita, hesola ba-
tzuk hartu, margotu eta
bidean jartzea erabaki
genuen lagun batzuk.
Badirudi bakarren bati
ez zitzaioala guk eginda-
ko lana gustatu, piste-
tatik hurbil zeuden sei-
naleak atera edota aiz-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Gustora jan zituzten kaxolan prestatutakoak.

kora batekin txikitu bai-
tzituen. Ez dakigu gaiz-
takeria egin zuena al-
tua, baxua, gizona, ar-
gala... izan ote zen.
Gauza bat bakarra da-
go argi alferra zela, pis-
ta aldameneko seinale-
ak bakarrik txikitu bai-
tzituen. Orain Jaimeren
laguntzari esker, be-

rriro ere bere lekuan ja-
rri dira seinaleak. Ea lu-
zaroan irauten duten eta
ez duten berriro ere nor-
baitek egindako "gaiz-
takerien" ondoriorik su-
fritzen.

Uso afaria

Azken hemezortzi ur-
teetako ohiturarekin se-



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Berriro bere lekuan daude seinaleak.

giz ehiza sasoiko afaria
egin da. Ehiztariak eta
eskopeta hartu ez bai-
na ehiza jatea gustoko
dutenek ez zuten hutsik
egin. Argazkian ageri
den bezalaxe, gustora
jan zituzten kaxolan
prestatutakoak.

ATZERA BEGIRA

Aspaldiko apustu
kontuak gogoan

F. ETXEBERRIA

Aurreko aldizkarian
aipatu bezala, Ezkur-
rako herritarrek joka-
tutako apustu garran-
tzitsuenekotakoa
1968ko otsailaren 11n
Tolosan Mindegia eta
Mariezkurrena anaiek
jokatu zutena izan zen.
Talde biak Ezkurra-
ko ziren eta horrek he-
rria bitan banatzea su-
posatu zuen, batzuen
eta besteen aldekoen
artean. Apustua amai-
tzean ordea, urak one-
ra etorri ziren. Urte be-
rean, martxoaren 24an
Antonio Mindegia eta
Jesus Mariezkurrenak
bikotea osatu eta Men-
daroko Kortabarria
anaien aurka apustua
jokatu zuten. Minutu
bateko errenta eman
zieten Kortabarria
anaiei eta 14 segun-
dogatik Ezkurra-
koek galdu zuten apustua.

GIZARTEA

GIZARTEA → BAZTAN-BIDASOALDEAN

Gas naturaleko erabiltzaileak lortzeko kanpaina berezia abian da

Erabiltzaileak
direnek
erabiltzaile
berriak lortzen
badituzte
ordainsaria
jasoko dute

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoko
gas naturaleko era-
biltzaileek 100 eta 300
euro arteko saria jaso
dezakete bere lagun edo
senideek gas konpainia
berekoko zerbitzuak kon-
tratatzeko badituzte.
Kanpainak ahoz ahoko
publizitatea du oinarri,
dagoeneko bezeroak di-

renak bere hurbilekoei
zerbitzua gomendatu
eta hauek gas naturala
kontratatzeko da xedea.
Zenbat eta jende gehia-
go batu, orduan eta sa-
ri potoloagoa lortuko du
bezero bultzatzaileak.
Kanpaina azaro eta
abenduan gauzatzen ari
dira eta urtea amaitze-
rekin batera bukatuko

da. Gas Navarrako be-
zeroek gutun bat jaso-
ko dute etxean promo-
zio kode batekin, lagun
edo senideren bat
konbentzitzea lortzen
badute kode hori aur-
keztu beharko dute or-
dainsaria lortu ahal iza-
teko. Denera, 4.000 gu-
tun banatuko dira, Arra-
ioz, Bera, Doneztebe,

Elbete, Elizondo,
Gartzain, Igantzi, Iruri-
ta, Legasa, Lekaroz, Le-
saka, Mugairi, Narbar-
te, Oronoz eta Sunbi-
llako gas naturaleko be-
zeroen artean.

Kanpainaren inguru-
ko informazio gehiago
jaso nahi dutenek, 900
333 456 doako telefo-
nora deitu dezakete.

GOIZUETA

GIZARTEA → AZAROAREN 30EAN

Hamargarren azienda feria eguna nobedadez betea dator

Ostiral
iluntzean 'Bi
bala' bertso
ikuskizuna
eskainiko dute
Gaztetxean

TTIPI-TTAPA

Hamargarren edizioa izango du aurten herriko hainbat elkarte, talde eta eragileren eskutik antolatzen den Goizuetako Feri egunak eta aurten ere nobedadez beteta dator azaroko azken larunbata.

Aurten gainera, bezperatik hasiko da festa, *Bi bala* bertso ikuskizuna izango baita Gaztetxean ostiral iluntzean. Aitzol Barandiaran eta Iñaki Gurrutxagak «ostiak eta muxuak» oparituko dituzte hainbat doinu ezaugarri bertso bihurtuta.

Baina larunbata da egun haundia eta izango da zerikusia goiz goizetik.

10etan emango zaio hasiera feriari. Azien-dek, artisau eta nekazaritza postuek beteko dute herria eta tartean hainbat ikuskizun izango dira, hala nola, burniarekin erretako gaztanbera, joare egileak, sagardo egileak... umeen txarangak goiz guzian zehar girotuko du herria eta umek po-nie gainean ibiltzeko aukera izango dute Txino

auzoan. Eguerdiko 12etan joko du gailurra feri egunak. Azken asteetan ikusmira handia sortu duen giza proba desafioa jokatu baidata plazan. Herriko sei mutilek 650 kiloko harria mugituko dute eta Emarri taldeko zortzi neskek 550 kiloko harria. Biek ala biek dena emango dute proba honetan eta seguru apostu bat baino gehiago jokatuko direla bertan.

BAZKARIA FRONTOIAN

Eguerdian bazkaria izango da Goiko frontoian. Txartelak Amaia kafetegian daude salgai. 8 urte bitarteko umeek doan dute sarrra. 9 urtetik 16 urte artekoek 10 eurotan, 17 urtetik aurrerako langabetuek 18 eurotan eta langileek 21 eurotan. Urtero giro ederra sortzen da eta seguru aurten ere halaxe izango dela. Hortaz arduratuko dira Xabi Solano eta Jon Mari Beasain "Esne beltza"ko musikariak, beraiek alaituko baitute bazkalondorea. Gauerako indarrak hartu nahi dituztenentzat pintxoak eskainiko dira plazan.

Gaueko 10etatik aurrera, berriz, Gugazerro-meria taldea izango da Gaztetxean musika doinu dantzagarriak eskaintzen. Hortik aurreko egitaraua librea da. Norberaren esku parranda noiz arte luzatu!



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Mus eta truk txapelketak jokatu zituzten Jubilatuen Egunean

Ohiturari eutsiz, mus eta trukeko txapelketak jokatu zituzten Jubilatuen Egunean, azaroaren 8an. Musean, Miel Sukuntza eta Eustakio Zubieta suertatu ziren txapeldun eta truk txapelketan berriz, Maritxo Salaberria eta Juanita San Miguel. Aipatzekoa da Maritxo Salaberriarena, 92 urterekin oraindik buru argia duela eta jokorako trebea dela erakutsi baitzuen. Biharamonean, pilota partidak eta bazkaria ere izan zuten.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Kantu eta dantza artean joan zen Umore Ona Elkartearen Eguna

Giro ederrean joan zen azaroaren 16an Umore Ona elkartearen eguna. Duela hilabete batzuk Goizuetako Abesbatzak Bizkaiko hiriburura egindako bixita bueltatuz, Bilboko Kirikiño Abesbatzak kantatu egin zuen elizan, bakarrik lehenik eta Umore Ona Abesbatzako kideekin batera gero. Baina elizako formaltasunaz aparte, kalez kale ere kantuan ibili ziren bi abesbatzetako kideak. Ondotik, bazkari jendetsua egin zuten Umore Ona elkartean. Baina kantuaz aparte, pilota partidak, Umore Ona areto-futbol taldearen ligako partida (9-7 irabazi zioten Gamon Lete Itzulpenak taldeari) eta dantzarien saioak ere izan ziren.

GIZARTEA → ABENDUAREN 3, 5 ETA 6AN


Euskararen egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu dira

Panpanoziri aldizkariaren bigarren alea banatuko da

Juana Mari SAIZAR

Areson abenduaren 3an urtero ospatzen da Euskararen eguna. Ospakizunerako, hausnarketarako eta aldarrikapenerako eguna izaten da eta aurtengoan ere izango da horretarako tartea, abenduaren 3a astearte izanik, ostegun eta ostiralean ere ekitaldiak antolatu dituztelako. Tartean Panpanoziriren bigarren alea banatuko da, eta izenburua ere aurreratu digute: "Iragana ezagutuz etorkizuna sortzen".

Aurten lehenengoz UEMAriburuzko erakusketa, giza proba eta he-



UTZITAKO ARGAZKIA

Lagun Artekoak fin aritu dira margoketa lanetan

Parranda egitea soilik ez dela aski eta oraingoan Lagun Arteko kideek Pake-Toki Elkarteko goiko solairua margotu dute. Elkarteko zuzendaritzarekin hitz egin ondotik, data zehaztu eta arratsalde batean ederki utzi zuten solairua. Materiala Pake-Tokik jarri zuen eta gazteek eskulana. Pintatu ondoren berriro ere prest dago elkartea hurrengo festa egunetarako.

rri lasterketa antolatu dituzte.

ASTEARTEA, ABENDUAK 3

- 11:00etan haurrekin mural margoketa.
- 12:40an Leitzako Jei-

ki abesbatzaren emanaldia Elizan.

- 16:30ean haurren musika saioa beheko trinketeetan. Ondoren karaokea eta txokolatea bizkotxoarekin.

OSTEGUNA, ABENDUAK 5

- 19:30 *Burdin Aroa* Areson hitzaldia udaletxean.

OSTIRALA, ABENDUAK 6

- Goizean, Panpanoziri

PILOTA

Mikel Olazabal lau terdiko finalaurrekoetan ariko da

Juana Mari SAIZAR

Untoriari 22-6 irabazi ondoren lortu du sailkatzea. Orain ligaxka jokatu beharko du Lemuno, Rico eta Gorkarekin. Aresoarrak adi egongo gara etxetik partidak ikusten edota frontonean animatzen. Eutsi gogor eta zorte on Mikel!

aldizkaria banatuko da. Udaletxean UEMAriburuzko erakusketa.

- 11:00 Herri lasterketa.
- 12:00 Giza proba plazan. Ibarra neskak vs Aresoko mutilak. Bitartean salda eta txorizio egosia egongo dira.
- 14:00 Bazkaria Pake Tokin, Kostilla jana. (Hel duek 15 euro eta 12 urte arteko haurrek 5 euro ordaindu beharko dute).
- 17:30 Talo tailerra, talo jana eta karaokea.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

ESKAINTZA: Nordikoak
edredoi fundak · albormozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toaillak
Tafalla, 13 · IRUNEA · 948 230 634

LEITZA

GIZARTEA → EKIMEN SOLIDARIOA

Bigarren eskuko jostailuen azoka antolatu dute azaroaren 30ean

Biltzen den dirua Denok Bat guraso elkartera eta Elikagai bankura bideratuko da

JM BARRIOLA

Herritar batzuen ekimenez azoka berezia izango dugu larunbatean: bigarren eskuko jostailuen azoka. Azken hila betean liburuak, mahai-jokoak, moztarok... bildu dituzte eta hauek izango dira orain salgai jarriko dituztenak. Herritarrek etxean alferrik dituzten jostailuei erabilera berria ematea da asmoa eta helburu solidarioa ere badu ekimenak, azokan lortzen den dirua Erleta Eskolako Denok Bat Guraso Elkartera eta Leitzako Elikagai bankura bideratuko delako. Eguraldiaren arabera udaletxeko karapean edo eskolako jangelan jarriko dituzte postuak 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara.

Iberoren aldeko urratsak

Leitzako Udalak askotan eskatu dio Nafarroako Gobernuari, Iberoko ingurunea, Interes Kulturalako ondare izendatzeko. Azkeneko apirilaren 30ean egin zuten eta badirudi oraingoan haintzakotzat hartu dutela eskaria. Izan ere, Nafarroako Gorbenuko Ondasun Historikoko sailak, Iberoko eraikin guztiak dauden lur eremua, ondasun inbentariatua izendatzeko lehen urratsak eman ditu, Iberoko Torrea, Ola-zaharra eta gainerako eraikin guztiak sartuz. Beraz inguru hau babesteko urrats bat eman da honekin.

Xalto bertso saioa Leitzan

Xalto bertso sarietako kanporaketa Ate-kabeltz herrigunean ospatu zen azaroaren 15ean. Hiru bertsolarik eskuratu dute Goizuetan jokatu zen finalerako txartela: Xabier Maia (Elizondo), Iker



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Herritarrek jostailu ugari eman dituzte azokarako.

Gorosterrazu (Ituren) eta Mikel Lasartek (Barañain). Nafarroako Bertsotze Elkarrekin urtero antolatzen dituen ekimenen artean dago Xalto sariaketa. Helburu nagusia, Nafarroako bertsolari gazte zein hazi berriei kantatzeko aukera ematea da, beraien bertsogintza ezagutarazi eta esperientzia har dezaten.

Azaroaren 25aren bueltan

Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren harira, ekimen ugari egin ziren herrian.

Azaroaren 9an, Helena Tabernaren *Nagore* filma izan zen ikusgai eta 100 herritar inguru bertaratu ziren emanaldira.

Azaroaren 22an Informazio gunea eta txapak egiteko postua, jarri ziren Leitzako azokan eta azaroaren 23an Bioenergetika eta ahal-duntze tailerra ere egin zen.

Azaroak 25ean elkarretaratzea egin zen Lopenea aurrean eta institutuan ere gaia landu dute DBHkoek ikuspegi desberdinetatik.



ARGAZKIAK: JM BARRIOLA

Torrea Eguna giro ederrean

Torrea libre Eguna zela eta, herritar ugari hartu zuen parte azaroaren 16an antolatutako ekimenetan. Goizean hotz haundia egin arren, gurasoak eta umeak jokoak eta jolasak izan zituzten herriko plazan; gazteak eta gainerakoak ederki pasatu zuten pelotan, pinponean eta futbolina eta toka bezelako jokoetan jolastuz. Erraldoiak eta buruhaundiek ere kalejira egin zuten herriatik eta horren ondoren Torrean bertan garagardo festako bazkaria egin zen. Iluntzean manifestazioa egin zen "epaiketa politikorik ez, Torrea libre" leloarekin. Bukatzeko Nats eta Wats musikoek giro bikaina jarri zuten.

Ba al zenekien

Georgina Hassan Caballero abeslari argentinarrek kontzertua eskainiko duela abenduaren 1ean. European barna kontzertuak eskaintzen ari da eta tarte bat hartuko du bere arbasoen herrira etortzeko, Leitzako Alfaro etxeak baitira bere senideak. Iluntzeko 7etan zinean hasiko da emanaldia. Ez galdu bere ahots berezia entzuteko aukera.

GIZARTEA → ABENDUAREN 3AN

Euskararen Eguna ospatzeko kalejira alimalea egingen da

Euskararen normalizazioari bulkaldi berria eman nahi zaio 'nirekin euskara, eskualdunak baikara' goiburupean

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da eta Baztanen ere «euskararen normalizazioari bulkaldi berria» emateko asmoarekin hainbat ekitaldi antolatu dituzte, *Nirekin eskuara, eskualdunak baikara!* goiburupean. Honela, goizean eta eguerdian, herri guztietan musika, haurrendako jokoak,

animazioa, dantzariak, bazkariak, laxoa partidak, txopo landatzea eta gisakoak izanen dituzte. 16:30ean Elizondoko kalejira alimalea egingen da. Irteera hiru puntu desberdinetatik egingen dute: Elbeteko plazatik, Baztan Berri plazatik eta BMtik. Bidean barna zein hasiera eta akabailako ekitaldietan animazioa, fanfarreak, kankailuak, joaldunak, kantaldia, antzerkia, txistulariak, txokolatada, bertsoak, dantzariak eta xinger-jatea izanen dira.

Baina euskararen inguruko ekitaldiak ez dira egun bakarrera mugatuko abenduan. Abenduaren 2tik 16rat UEMAko erakusketa ikusgai izanen da Ariz-

kunenean. Abenduaren 1ean, igandean, *Jokaut* antzezlan eskainiko du Pikor Teatro Taldeak 19:00etan Iruritaiko Gizarte Bilgunean. Abenduaren 5ean, *Hizkuntza ekologia* solasaldia eskainiko du Eusko Ikaskuntzako Belen Urangak Arizkunenean 19:00etan. Abenduaren 7an, Euskokultur erakundeak ahozko ondarearen aurkezpen

ekitaldia egingen du 17:00etan Balleko Etxean. Hilaren 9an *Alkasoroko Bentaren* aurkezpena egingen du Mikel Tabernak Anizko elkartearen eta arnagune-

en gaineko tailerrak egingen ditu UEMAK 10ean eta 12an Arizkunenean. Abendu hondarreko bertze ekitaldien berri hurrengo alean emanen dugu.



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

Arraioztarrak garaile Nafarroako 2. mailako arpana txapelketan

Nafarroako bigarren mailako arpana txapelketa jokatu zen Doneztebeko ferie-tan. Emozio handia izan zen eta azkenean, Arraiozko Xabier Urrutia eta Daniel Saldias nagusitu ziren (5'08" eta lehen mailara igoko dira. Larragetako Alberto Oteizak eta Iberoko Adrian Berruezok 7 segundo gehiago behar izan zituzten.

Ba al zenekien

Kataluniako Parlamentuan CUP alderdiko David Fernández diputatuak Rodrigo Ratori bota zion sandalia Elizondoko Zangue zapata-dendan erositia zuela uda honetan. Hala agertu da komunikabide ezberdinetan.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

BAZTAN

GIZARTEA → AZAROAREN 8AN

Elizondoko ur-depositu berria inauguratu dute

Lanen kostua 692.000 euro ingurukoa izan da eta Nafarroako Gobernuak %90a ordaindu du

TTIPI-TTAPA

Elizondoko ur-depositu berriaren inaugurazioa egin zen azaroaren 8an. Lanen kostua 692.000 euro ingurukoa izan da eta Nafarroako Gobernuak %90 ordaindu du, 622.782 euro. Depositu berriari esker nabarmen handituko da erregulatzeko gaitasuna. Horrek hornidura bermea hobetuko du eta Elizondoren banaketasarean presio handitu, orain artio herriko toki batzuetan eskasa izan

baita. Horniketarako kalitate aunitzez handiagoa izanen du eta baldintzak ere hobekiago izanen dira kontsumitzaileentzat. Lehengo depositua ponpaketa metatzeko instalazio gisa erabiliko da, eta bertatik depositu berrira eramanen da ura.

Inaugurazio ekitaldian Yolanda Barcina Nafarroako Gobernuko presidentea, Garbiñe Elizegi Baztango alkatea, José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria, Patxi Pérez Toki Administrazioako zuzendari kudeatzailea eta Luis Miguel Lameirinhas Iturri-Ederra uren elkarreko lehendakaria joan ziren.

Instalazio berria hornigoi armatuzko ganbera biko depositua da,

1.700 m³ko edukierakoa. Lehengo depositutik pasatzen da ura depositu berrira ponpaketa-sistema berri batekin. Depositua Mariezcurrena eraikuntza enpresak eraiki du hamar hilabeteetan.

9 HERRITAN

Elizondon inauguratu ziren obrez gain, Baztango bederatzi herritarako (Irurita, Lekaroz, Ziga, Zagaurre, Gartzain-Ainzano, Ariztegi, Etxerri, Arraioz eta Arrazkazan) uren goi-hornikuntzako konponbide bateratuaren bigarren faseko obrak ere akitu dira. Obra horiek burutzeko, Nafarroako Gobernuak 268.760 euro eman ditu, hau da, kostu osoaren % 90.

Bigarren fasean sistemaren hasierako ba-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Gobernuak, Baztango Udaleko eta Iturri-Ederra elkarteko agintariak, depositu berrian.

liabideak indartu dira, iturburu berriak hartu eta hurrengo faseak gauzatzea ahalbidetu da, baliabide berri horiekin proiektu honetan sartzeko dauden gaineko herriak hornitzeko. Iruritako konponbidea ez dago guztiz aki-

tuta, Irurita eta Lekaroz herriak soilik hornitzen baitira proiektu horren bidez. Gogorazi beharrezkoa da, proiektuaren lehenengo fasean Lekaroz eta Iruritako deposituetara doazen hoderria nagusiak berritu zirela.

Berdintasunaren aldeko prestakuntza saioak hasi dira Arizkunenean

TIPI-TTAPA

Berdintasunaren alde egiteko herritarrendako prestakuntza saio irekiak egiten hasiak dira Elizondoko Arizkunenean, Baztango Udalaren Berdintasun Zerbitzuak antolatuta. Azaroaren 27an, 13:00etatik 15:00etara egitekoa zen lehenbizikoa eta berriz hiru saio egingen dira: abenduaren 11n, 13:00etatik 15:00etara edo 18:00etatik 20:30era, abenduaren 16an ordutegi berean eta abenduaren 18an, 13:00etatik 15:00etara. Saioak doakoak dira eta akabailan diplomak emanen dituzte.

Berdintasunaren inguruko formakuntza beharrezkoa da ulertzeko zer den berdintasun plana, nola sartzeko ahal diren berdintasun irizpideak udalak ematen dituen dirulaguntzetan edo zer tresna dauden berdintasun ikuspegia bermatzeko arlo ezberdinetan, berriz berriz.

GIZARTEA

Ongizatea bultzatuko duten programak sustatzeko dirulaguntza deialdia egin du Udalak

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak aurrekontuko kontu-sail bat bideratu du Nazioarteko Lankidetzarako proiektu, programa eta planendako dirulaguntzak emateko, garapen bidean diren herrialdeetako komunitateen ahalmen sozio-ekonomikoak garatzen laguntzeko eta haien oinarritzko beharrezkoak asetzen eta tokiko giza baliabideak bultzatzen saiatzeko. Proiektu hauek aurrera eramateko dirulaguntzak eskatzeko deialdia zabalik egongo da azaroaren 14etik aitzinera.

Bertetik, Baztanen esku hartu eta gizarteratzea sustatzen duten irabazi-asmorik gabeko talde, entitate, kolektibo eta elkarteek dirulaguntzak

emateko deialdia ere zabalik egongo da azaroaren 14tik aitzinera.

Dirulaguntzen helburua da prebentzioaren, laguntzaren, aisia eta denbora librearen eta gizarteratzearen arloko lana eginez herritarren ongizatea bultzatuko duten programak sustatzea; hots, espresuki kolektibo ahulei, behar bereziak dituztenei edo gizarteratzeko zailtasunak dituztenei zuzentzea.

Informazio guztia www.baztangoudala.eu webgunean dago eskuragarri. Edonola ere, edozein zalantza izanez gero udaleko Gizarte Zerbitzuarekin jartzen ahal da harremanetan (landresena@baztangoudala.eu edo 948580006).

GIZARTEA → ERDIZ BIZIRIK TALDEAREN ERRANETAN

«Datu ekonomikoek Erdizeko komunalaren garrantzi estrategiko azpimarratzen dute»

Aurten ehun baserritarrek bere aziendak alatu dituzte bazkalekuan

TTIPI-TTAPA

Erdiz Bizirik taldeak Erdizeko bazkaleku komunalak Baztango ekonomia errealean duen garrantzia azpimarratu nahi du eta, horretarako, Baztango egitura ekonomikoari buruz azken aldian argitaratu diren datuak aipatu nahi izan ditu.

Hasteko, bazkalekua inoiz baino baserritar gehiagok erabili dute aurten, denera 100 baserritarrek hain zuzen. Horrela, guztira 500 behi buru pasa, 162 zaldi-behor buru eta 836 ardi buru alatu dira Erdizen. «Datuak ez dute zalantzarako tarterik uzten,

Erdizeko bazkaleku komunalak Baztango nekazariendako behar-beharrezkoa da eta sektore ekonomiko estrategiko horren oinarritzeko baliabidea da», Erdiz Bizirik taldeak dioenez. Hori erranik, aurtengo turismoari buruzko datuak ere aipatu dituzte. Baztango turismo bulegoak inoiz baino turistak gehiago erregistratu ditu, %28 gehiago uztailan eta %94 gehiago abuztuan. Erdiz Bizirik taldearen ustez, «Baztanerat etortzen diren turistak Baztango inguruaz gozatzeri heldu dira, Baztango kultura paisaiaz. Nekazariak eraikei dute nortasun eta erakarpenera bereziko kultura paisaia hori, Baztanen estrategikoa den turismo sektorearen landetxeak, jatetxeak, errota, abentura kirolak... -bizkarrezurra da».



UTZITAKO ARGAZKIA

Xaulik zozketatutako margolana Iruñeko Adriana Cortésentzat

Aitzineko alean aipatu bezala, azken hamabi urte hauetan bezala funtzionatu ahal izateko, zenbait kanpaina martxan jarri ditu Xaulik dirua eta arazoaren ikuspena lortzeko. Hauen artean Ana Mari Marin margolari ezagunak eskuzabalki emandako akuarela baten zozketa egin zen Elizondoko feria egunean eta 922a izan zen saritutako zenbakia. Azaroaren 7an, Ana Mari Marin berak margoa eman zion saritua izan zen txartelaren jabea, Iruñeko Adriana Cortés-i.

Bertzalde, joan den urriko Elizondoko feriek aspaldian izandako erantzunik jendetsuena izan dutela ere azpimarratu nahi izan dute: «Alde batetik Elizondoko Herriak nekazariaren azkeneko borts urteetan egindako lanari esker merkatuko plazak zuen irudi ederra, eta, bertzetik, EAEn besta eguna izanik, ehunka jendek Elizondorat etortzeko egin zuten aukera. Halaber, azaroaren hasieran egindako Kiri-koketa bestak ere sagardogintzak sektore produktibo moduan

Baztanen duen ahalmena erakutsi zuen eta, horrekin bat, sagardogintzaren kulturak turistak erakartzeko duen ahalmena ere bai. Hala, irailean egindako behi-azienda pirenaiaren feriak sektore honen garrantzia nabarmen uzten du».

Datu hauek guztiek zera erakusten dute Erdiz Bizirik taldearen arabera: «Baztanen eragin handia duen errealitate ekonomiko konplexu eta garrantzitsua dago. Bertako ohiko jarduerak, ondare komunalak eta jende aunitzen la-

nak eraikitakoa eta, azkeneko urteetan gorabidean ari dena. Horren baitan Erdizeko bazkaleku komunal dago. Hala, Magnaren Erdizeko proiektuak eta Baztango Garapenerako Elkarteak horri ematen dion babesak, ekonomia egitura hori guztia mehatxatzen du». Azkenik, «hamaikagarren aldiz Erdiz Aldude Mendi izeneko Babes Berezik Eremuan dagoela» oroitarazi nahi dute Erdiz Bizirik taldekoek eta Europako legediak bertan harrobia egitea debekatzen duela.

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

ARMUA JATEXEA
T. 948 599 131
Zugarramulde errep. 3 km
URDULIZ

ELBETEKO POSADA
%10eko
DESKONTUA
kartan, 30etik
gorako gastuan

MENDIALDE JATEXEA
T. 948 453 060 - AMAIUR
www.mendialdea.com

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
Santiago, 59 2C - ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 816

ELBETEKO POSADA
%10eko
DESKONTUA
kartan, 30etik
gorako gastuan

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

HEZKUNTZA → PROTESTEK SEGITZEN DUTE

LOMCEren kontra agertu dira Urdazubiko eskolan ere

Guraso Eskola errifak saltzen ari da eta abenduaren 20ko bestan eginen da zozketa

Margari eta Koro

Aitzineko Ttipi-Ttapan Zugarramurdiko eskolako haurrek murrizketen kontra egindako argazki bat ikusi gE-nuen. Oraingo honetan Urdazubiko eskolakoek egin zutena ikusgai duzue. Gure eskolak tti-kiak dira: Zugarramurdin bi herrietako ttarrenak aritzen dira, denetara 32 haur. Urdazubin berriz, koxkorrenak, DBH 2. maila arte, denetara 18 haur.

Denen artean zaindu eta babestu behar

ditugu eskola tiki hauek, eta oraintxe berean aukera bat badugu: guraso elkarteak saltzen ari den errifak erosiz.

Gero urteroko moduan, eskolek abenduaren 20an, bestatxo bat eginen dute, eta horren baitan zozketaren emaitza jakinen da. Ez da nolanhiko saria gainera, denetara hamabortz bat sari partitzen baitira errifak erosten dituztenen artean.

Zugamurdiarrak Munduan barrena

Herriko aunitzek bizimodua ostalaritza eta turismo aldera antolatua dutenez, gehienek bakantzak negu aldean hartzen dituzte. Horren seinale, heldu den urtarila da, non zugamurdiar batzuk mailetak egin eta bakantzetan joanen zaizkigun: batzuk Biet-

namera, bertzeak Uru-guayra, edo Peru, edo Dominikar Errepublikara, eta baita Tailandia-
ra ere.

Aipagarria da, duela 23 urte (gisa honetako bidai luzeak apenas egiten ziren garaian), Estefa, Juan Luis, Axun eta Mikelek hilabete eta erdi eman zutela Tailandia, Nepal eta India eza gutzen.

Urdazubiko Ugarana Elkarateak 15 urte

70 emakume biltzen dituen Urdazubiko Ugarana elkarateak 15 urte bete ditu eta hainbat ekitaldi antolatu ditu ospatzeko. Hurrengo alean zabalago emanen dugu horren berri baina aurreratuko dugu Santa Luzia egunean, abenduaren 13an, 15. urtebetetzea ospa-



UTZITAKO ARGAZKIA

Urdazubiko eskotako ikasleak LOMCEren kontrako irudia egin zuten.

tzeko bazkari berezia eginen dutela. Urdazubiko eta inguruko emakume guztiak gonbidatu nahi dituzte bertan

parte hartzera. 2014ko martxoaren 8an Petritegi sagardotegira joateko autobusa ere antolatuko dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

1990 urtean Nepalen ateratako argazkia. Argazkilaria bere burua trazu batekin tapatzen zuen hoietako bat omen zen.

DANTXARINEAN ABENDUAREN 13A BITARTE

Pintxo bat doan eskaintzen ari dira aurten ere Merkataria eta Ostalari Elkarateko hamar establezimendutan

TTIPI-TTAPA

Gan den urtean bezala "Pintxo batera gonbidatzen zaitugu" kanpaina egiten ari dira, Dantxarineako Merkataria eta Ostalari Elkarateak antolatuta. Txomin Iribarren elkarateko presidentek azpimarratu duenez, bi urtez egindako ekintza honek arrakasta izan du eta, ekimenaren asmoa Dantxarineako merkataritza berpiztea eta bezeroen fidelitasuna saritzea da. Iribarrenek azaldu duenez, ekimenen parte hartzen duten hamar es-

tablezimenduetako batera bertaratzaren diren guztiei pintxo bat oparitzen zaie edaria eskatzean.

Kanpaina, azaroaren 13an hasi zen eta asteazken, ortzegun eta ortziralek guztietan errepikatuko da abenduaren 13a bitarte.

Josenea Gasolindegia, Landibar, Mikelen-Borda, Benta Agus, Benta Iribarte, Lapitxuri, Benta Paco, Benta Pantxo, Benta Patxi eta Benta Peio dira parte hartzen duten establezimenduak.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

FLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

GIZARTEA → MANIFESTALDIAN PARTE HARTZEKO DEIA

Batera plataformaren deiarekin bat egin du Auzapezen Biltzarrak

Azaroaren
30ean Maulen
eginen da
manifestazioa

Franck DOLOSOR

Batera plataformak azaroaren 30ean Maulen egingen duen manifestaldiarekin bat egin du Ipar Euskal Herriko auzapezen biltzarrak, hauen artean bere buruak, Christine Bessonart Senpereko andere auzapezak. Manifestaldian parte hartzera deitu dituzte hautetsiak eta herritarrak. Bertan galdetuko da Iparraldeko lurralde elkargo berezia sortzea. Frantziako errepublikaren barnean garai hauetan egiten ari den deszentralizazio prozesuaren baitan. Euskararen ofizialtasuna, unibertsitatearen sortzea eta laborantza ganbara sortzea ere aldarrikatuko dira Xibero-ko hiriburuko karriketan.

Frantziako gobernuak ezezkoa eman dio ja-

danik lurralde elkargo berezia sortzeari baina Bessonarten arabera ez da ideia hau galdu behar hautetsien gehien-
goak sostengatzen baitu eta lurraldeak behar duelako bere geroa bermatzeko. Gogoratu du azken urteetan gogoe-
ta sakona egin dela bi unibertsitarirekin eta 104 auzapezek horren aldeko sinadura eman dutela, hau da hirutik bik. Joan den ekainaren lehenean Baionan egin zen manifestaldia-
ren ondotik, Maulen dei bera helarazi behar zaio-
la gobernuari uste du-
te hautetsiek. Badakite Paristik datozen berriak ez direla onak eta "mespretxu" horrek de-
zepzioa ekar dezakee-
la. Dena den, ez dela amore eman behar dio-
te hautetsi euskal-
tzaleek. Begi txarrez ikusten dute azken urte-
etan eskuinak eta ezke-
rrak izan duten jarrera ez baitiete erantzunik ematen Ipar Euskal He-
rriaren aldarrikapenei.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Christine Bessonart andere auzapeza hautetsi andana batek inguratua Senpereko herriko etxean joan den azaroaren 20an.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Jean François Maitia gozogilearen pastizak dastatzeko parada izan zen San Martin egunean saltzaileek ospatu zuten bestan.

Hautetsiak beldur dira giro politikoa berriz gaiztotzea funtsean berriki ikusi den bezala ezezagunek udako bi etxe erre dituztelarik Aiherran eta Itsasun. Gazte batzuen radikalizazio arriskuaren aitzinean egotzera sanotzea errespetuz

galdegin diote Frantziako gobernuari.

Mutur finen eguna

Azken urteetan bezala aurten ere, herriko saltzaileek San Martin besta eguna baliatu dute gaitzeko ospakizuna apailatzeko. Inharrean.

Aldi huntan dastaketa frango egin ahal izan da sukaldari, okin eta gozogileek prestatu dituzten platekin. Herriko saltzaileak hobe ezagutzeko parada eman zaie herri bazkarian besta giroan eta umore onean bildu diren herritarrei.

SARA

GIZARTEA → ELKARTASUNA

